



DURANGOKO ZAINTZEI BURUZKO DIAGNOSTIKOA: Pertsona zainduen eta zaintzen dituzten pertsonen egoera

2025eko martxoa

AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	2
METODOLOGIA	4
Sakoneko elkarrizketa irekiak.....	4
Herritarrei zuzendutako galdetegia	5
Parte hartze saioak	6
Iturri ez zuzenen azterketa	7
ZAINTZA LANAK ETA BATERAGARRITASUN ERANTZUNKIDEAREN TESTUINGURUA EAEN.....	9
ZAINTZA LANAK ETA BATERAGARRITASUN ERANTZUKIDEA DURANGON.....	19
Populazioa	19
Lan merkatua	22
DURANGOKO ZAINTZAILE ETA ZAINDUEN BEHARRAK ETA ESKAKIZUNAK.....	25
Nola ulertzen dugu zaintza?	25
Zaintza ez profesionala	28
Zaintza profesionala	38
Pertsona zainduak.....	40
ZERBITZU ETA BALIABIDEEN MAPA BAT.....	42
Zerbitzu eta baliabideen gida	52
ONDORIOAK	66
ETORKIZUNERA BEGIRAKO ERRONKAK	68
ESKAKIZUNETATIK ERATORRITAKO EKINTZA POSIBLEAK	69

AURKEZPENA

“Zaintza bizimodu duina edukitzeko oinarria da: ez da unean uneko zerbait edo alderdi koiuntural bat. Zaintza bizitzako une eta eremu guztietan da beharrezkoa. Gure gorputzen eta gure komunitateen iraunkortasunerako ezinbestekoa da; hau da, bizitza, ongizatea eta osasuna iraunarazteko eta kudeatzeko” (Bizitzak erdigunean Euskal Herriko Koordinadora Feminista, 2022).

Ekonomia feministak definitu izan duen bezala, zaintza bizitza sostengatzeko egiten dena da. Hau da, zaintza-lanak bizitza egotea, mantentzea eta izatea ahalbidetzen duten lanak, esfortzuak eta denborak dira. Izan ere, zaintzak hainbat prozesu desberdin barne biltzen ditu; alde batetik, ikusten diren lanak dira, tradizionalki etxeko lanak izan direnak: bainugela garbitzea, lisatzea edo harrikoa egitea, pixoihal bat aldatzea edo elikatzea. Baina ikusezinak edo ukiezinak diren prozesuak ere barne biltzen ditu: zaintzen duzun pertsonaren arropa pentsatzea afaria prestatzen zauden bitartean, erosketako lista egitea telelana egiten duzun bitartean, banatzen dagoen laguna deitzea, zure eguna antolatzea eguneko zentroaren ordutegiaren arabera... Zaintza lan hauek egunerokotasunean konbinatu eta gurutzatzen dira, orokorrean dimentsionatuak izan gabe.

Lanaren banaketa sexual klasikoari erreparatuz “gizon hornitzailea-etxekoandrea”, zaintza lanak emakumeen gain geratu izan direla ikus daiteke. Honek eragin du, ekonomiaren antolaketa klasikoari begira, lan produktiboa gizonak egiten zutela, eta lan erreproduktiboa emakumeek. Horrela, emakumeak etxeko esparru pribatuan geratu ziren, eta gizonak kanpoko esparru publikora igaro ziren. Hala ere, XX. mendearen bigarren erdian, emakumeek lan produktiboaren merkatura igaro ziren, eta lan produktiboaren eta erreproduktiboaren birbanaketa berri bat egin beharrean, emakumeek lan bikoitza egiten hasi ziren, historikoki egin izan duten lan erreproduktiboa eta lan produktiboa.

Egin izan diren azterketa askok, gehienbat, emakumeek lan-karga handiagoa agerian usteaz gain, denbora haien etsairik okerrean bezala hartzen dutela erakusten dute. Lana eta atsedena bezalako kategorien arteko bereizketa askoz ere txikiagoa da emakumeentzat, aisialdiko, atsedeneko eta loaldiko denborei etxeko eta zaintzako lanak gainjartzen baitzaizkie.

Hau ikusita, argi geratzen da gizarteak berrantolaketa baten beharra daukala, baina hau ez da ematen: gizarteko roletan ez da oraindik funtsezko aldaketarik eman, eta beraz, zaintzaren erantzukizun soziala emakumeengan geratzen da. Beraz, alde batetik, zaintza baliogabetutako lan bat izaten jarraitzen duenez, zaintza arloko langileen lan baldintzak txarrak dira; eta bestetik, emakume askok lan *produktiboa* alde batera utzi eta lan *erreproduktiboa* soilik burutzea behartuta ikusten dira, horrek dakarren autonomia ekonomiko faltarekin, gizarteratzeko ezintasunekin...

Ildo horretan, gaur egun ezin da bateragarritasuna aipatu erantzunkidetasunaren kontzeptua aipatu gabe, lotura estua baitute. Erantzunkidetasunak esan nahi du gizonek eta emakumeek ekitatez onartzen dituztela etxeko arloari, familiari eta zaintzari lotutako erantzukizunak, eskubideak, betebeharrak eta aukerak. Azken batean, gizarte-eragile guztiek (administrazioak, enpresak, sindikatuak, elkarteak) beren gain hartu behar dute errealitate pertsonal, familiar eta profesionalaren kudeaketa eraginkorra. Horretarako, ezinbestekoa da gaur egun Durangoko udalerrian dagoen zaintza-egoera genero-ikuspegitik aztertzea, alderdi formaletik alderdi informalerara, eta, gainera, bizitza bateragarri egitea erraztuko duten espazio komunitarioak sortzen lagundu edo, hala badagokio, hauek indartzeko premiak ezagutzea.

METODOLOGIA

Abiapuntuko diagnostiko bat burutu da, udalerriko gaur egungo zaintzen inguruko beharrak, egoera eta nahiak ezagutzeko.

Helburu orokorra:

- Durangoko zaintzen errealitatea ezagutzea.
- Pertsona zainduen eta zaintzaileen beharrak eta eskakizunak aztertzea.

Helburuok gauzatzeko, metodologia kualitatiboa, parte hartzailea eta kuantitatiboa erabili da, teknika desberdinak erabiliz talde eta eragile desberdinetatik informazio gehiena lortzeko asmoz.

Zehazki, honako teknikak erabili dira:

Teknika	Metodologia	Target-a
Sakoneko elkarrizketa irekia	Kualitatiboa	Zaintzaile eta zainduak Behar bereziak
Galdetegia	Kuantitatiboa	Herritarrak
Parte hartze saioak	Parte hartzailea	Herritarrak
Iturri ez zuzenen azterketa	Kuantitatiboa	

SAKONEKO ELKARRIZKETA IREKIAK

Sakoneko elkarrizketa, teknika kualitatibo bat da, zeinetan elkarrizketatu baten eta elkarrizketagile baten artean solasaldi bat sortzen den antolatutako galdera batzuen inguruan.

Sakoneko elkarrizketa hauek hiru helburu nagusi izan dituzte: lehenik, bateragarritasunaren arloan dauden beharrak detektatzea eta gaur egun dauden eskariak ezagutzea; bigarrenik, zainketa formalen eta informalen karga hobetzeko proposamen zehatzak jasotzea; eta azkenik, zaintza ulertzeko dauden era desberdinak identifikatzea.

Hurrengo 18 elkarrizketak burutu dira landa laneko prozesuan zehar. Lehen esan bezala, ikerketaren helburuen barnean zaintza mota desberdinak aztertzea dago, zaintza profesionala eta zaintza ez profesionala, eta baita zaintza zerbitzu eta ekipamendu publikoak ere. Honekin batera, herri mugimenduko eta elkarteetako kideak elkarrizketatu dira, beste zaintza forma eta ulerkera batzuk identifikatzeko asmoz.

Horrela, 31 pertsoneri burutu zaizkie elkarrizketak, kontuan hartuta zaintza behar eta betekizun desberdinak daudela.

Zaintzaile profesionalak:	
1. Etxez-etxeko zaintza zerbitzua (2)	2 Emakume
2. Nagusien egoitza	
- Gizarte langilea:	Emakume 1
- Dinamizatzailea:	Emakume 1
3. Zaintzaile pribatuak:	2 Emakume
4. Osasun mentaleko zentroa:	Emakume 1
Zaintzaile ez profesionalak:	
5. Pertsona nagusiak:	2 Emakume
6. Dibertsitate funtzionala:	Emakume 1
7. Herri mugimendua eta elkarteak (4)	10 Emakume
Zerbitzuen arduradunak:	
8. Udal teknikariak:	5 Emakume
9. Geu Be:	Gizon 1
10. Eguneko zentroa:	2 Emakume
11. Zaindu	Emakume 1
12. Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak	Emakume 1
Pertsona zainduak:	
13. Pertsona nagusiak:	Emakume 1
14. Osasun mentaleko zentroa:	Gizon 1

HERRITARREI ZUZENDUTAKO GALDETEGIA

Galdetegia edo inkesta, teknika kuantitatibo bat da, informazioa pertsoneri galdetuz lortzen da. Galdetegiaren abantailetakoa bat populazio bati buruzko informazio adierazgarria lor daitekeela da, lagin adierazgarri bat lortuz gero.

Kasu honetan, herritarrei bideratutako galdetegiaren helburua herritarren iritzia eta esperientziak ezagutzea zen, zaintzaren inguruko errealitate orokorra ezagutzea eta herritarren beharrak identifikatzea.

Hemen ere, zaintza pertsona guztiok daukagun behar eta erantzukizun bat dela ulertzen da, eta horregatik, galdetegiak Durangoko herritar guztiei bideratuta egon dira.

Horrela, galdetegiak paperean eta online banatzea erabaki da, talde eragileko hainbat elkarteei banatu zaizkie, Andragunean betetzeko utzi dira, eta beste hainbat espazioetan ere. Hala ere, ez dira erantzun adierazgarriak izateko beste galdetegi jaso.

Durango banatutako galdetegi guztietatik 47erantzun jaso dira, 32 emakume, 12 gizonen eta 3 beste genero identitate batekoak. Honek ere, informazio adierazgarria ematen digu, izan ere, erantzunen %70 emakumeenak izan dira.

Erantzunak	Kopurua
Emakumeak	32 (%68)
Gizonak	12 (%26)
Beste genero identitate bat	3 (%6)

Nahiz eta informazioa ez den adierazgarria, elkarrizketetan lortutako informazioa laguntzeko erabilgarri suertatu da.

PARTE HARTZE SAIOAK

Bi parte hartze saio planifikatu dira, lehenengoa proiektua aurkeztu eta ekarpenak eta proposamenak jasotzeko helburuarekin, eta bigarrena, zaintza zerbitzuak identifikatzeko helburuarekin.

Parte hartze saioek herrian dauden beharrianak eta errealitatea beste era batera aztertze aukera ematen duten saioak dira. Honetaz gain, herrian gaiaren inguruko hausnarketa espazio bat irekitzea ahalbidetzen dute, eta baita ere, proiektuaren jarraipen bat egiteko aukera irekitzen zaie nahi duten herritarrei.

Horrela lehenengo parte hartze saioan 25 pertsona egon ziren, 24 emakume eta gizon bat. Zaintzaile profesionalak eta ez profesionalak elkartu ziren, eta baita gaian interesa zuten herritarrak ere. Bigarren saio parte hartzailean parte hartzea murriztagoa izan zen, bertan hainbat eragile elkartu ziren, eta baita zerbitzu batzuetako erabiltzaileak ere.

	Generoa	Kopurua
Lehenengo parte hartze saioa	Emakumeak	24 (%96)
	Gizonak	1 (%4)
Bigarren parte hartze saioa	Emakumeak	14 (%87,5)
	Gizonak	2 (%12,5)

ITURRI EZ ZUZENEN AZTERKETA

Iturri ez zuzenen azterketa, kasu honetan, zaintza eta erantzunkidetasunaren inguruko testuinguru orokor bat osatzeko aukera zabaldu du. Beste pertsona eta erakunde desberdinek burututako azterketetan oinarritu gara Euskal Autonomia Erkidegoko informazio zehatz eta adierazgarria biltzeko helburuarekin. Hurrengo taulan erabilitako iturriak aurkezten ditugu:

Nazioarteko Lanaren Erakundea (NLE)	“Zaintza lana eta zaintzako langileak, lan txukuna duen etorkizun baterako (2019)” Eskuragarri hurrengo estekan: Care Word and Care Jobs interiores.indd (ilo.org)
Espainiako Estatistika Institutu Nazionala	Lan merkatuari buruzko datu estatistikoak (2023)
	Erroldari buruzko datuak (2023)
	Bizi Baldintzei buruzko inkesta (2020)
	“Familia Aurrekontuei buruzko Inkesta” Eskuragarri hurrengo estekan: Gasto por códigos de gasto (4 dígitos ECOICOP/EPF), según comunidad autónoma de residencia(25145) (ine.es)
Eustat	Lan merkatuari buruzko datu estatistikoak (2023)
	“Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta (2020)” Eskuragarri hurrengo estekan: Prentsa Oharrak: Lan-bizitza eta familia-betebeharrak bateragarri egiteak jarraitzen du zailtasun ugari eragiten, 2020an lanean ari diren lau pertsonatik baten baino gehiagoren kasuan (eustat.eus)
Emakunde	Emakunde zifratzen 2020 Eskuragarri hurrengo estekan: ZIFRAK 2020 – Emakumeak eta gizonak Euskadin
Emagin	“Beterri Buruntzaldeako zaintza erregimenaren diagnostikoa eta ekintzarako proposamena” (2020)
Espainiako Gizarte Segurantzza	Altako afiliazioak erregimenaren arabera 02-Med-C-P-Reg-Gen 03-2021 (seg-social.es)
Díaz Gorfinkel y Martínez Buján	“Emakume migratzaileak eta zaintza-lanak: etxeko sektorearen eraldaketak Espainian” 027arto8.pdf (funcas.es)
Ikuspegi	“Población extranjera y mercado laboral vasco (2020)”: Eskuragarri hurrengo estekan: pan75cas.pdf (ikuspegi.eus)
Etxeko Langileen Elkartea (ATH-ELE)	Estatistikak 2018. Eskuragarri hurrengi estekan: estadisticas 2018.pdf - Google Drive

UPV/EHU Soziologia eta Gizarte Laneko Fakultateak eta Civersity	“Euskal Autonomia Erkidegoko etxeko langileen egoeraren diagnostikoa eta horiek estaltzen dituzten premien diagnostikoa” Eskuragarri hurrengo estekan: CIVERSITY WORKING PAPER 01/2016 (euskadi.eus)
Euskadi Opendata	Udalerrietako iraunkortasun adierazleak
Giza Eskubideen Ministerioa, IMSERSO eta SAAD	Autonomiarako eta mendekotasuna artatzeko sistemaren hileroko estatistiken azterketa esplikatiboa (2021) Eskuragarri hurrengo estekan: estsisaad_compl20211031.pdf (imsero.es)
	Hilkortasunaren monitorizazioa autonomiarako eta mendekotasuna artatzeko sisteman (SAAD). Eskuragarri hurrengo estekan: momo_dep_202110.pdf (imsero.es)
Eusko Jaurlaritza	Euskadiko haurren eta nerabeen errealitatea zenbakitan. Eskuragarri hurrengo estekan: La realidad de la infancia y la adolescencia vasca en cifras (euskadi.eus)


ZAINZA LANAK ETA BATERAGARRITASUN ERANTZUNKIDEAREN TESTUINGURUA EAEN

Nazioarteko Lanaren Erakundea (NLE) “El trabajo de cuidados y los trabajadores del cuidado para un futuro con trabajo decente” txostena argitaratu zuen 2019an. Bertan zainketaren inguruko datu ezberdinak aurkezten dira, non familian eta lan-merkatuan dauden genero-desberdintasun iraunkorrak agerian jartzen dira, zaintzarekin ezinbestean lotuta daudenak.


NLE-ren arabera, emakumeek ordaindu gabeko zainketa-lanaren %76,2 burutzen dute. Ondorioz, mundu osoko emakumeen ia erdiek ez dute ordaindutako lanik, etxean lan egiten dutelako.

Mundu mailan, emakumeek lan-produktiboaren merkatutik kanpo egoteko adierazten duten arrazoi nagusia ordaindu gabeko zaintza-lana da. Aldiz, gizonezkoen kasuan arrazoi nagusia auzi pertsonalak dira. Espainiaren kasuan joera berbera mantentzen da, baina gizonezkoen arrazoi nagusia ere beste sarrera-iturri batzuk dauzkatela da.

Grafiko 1: Munduko pertsona ez-aktiboen %, sexuaren eta lan-indarretik kanpo egoteko arrazoi nagusiaren arabera (2019)



Grafiko 2: Espainiako pertsona ez-aktiboen %, sexuaren eta lan-indarretik kanpo egoteko arrazoi nagusiaren arabera (2019)




Iturria: NLE-k eskainitako datuetatik abiatutako berezko lanketa


Nazioarteko Lan Erakundeak 64 herrialdetan denboraren erabilerari buruz egindako inkesten datuen arabera, egunero 16.400 milioi ordu ematen dira ordaindu gabeko zaintza-lanetan. Horiek 2.000 milioi pertsonari dagozkie, egunean zortzi orduz ordainsaririk jaso gabe lan egiten dutenak. Emakumeek gizonek baino 3,2 aldiz denbora gehiago ematen dute, batez beste, ordaindu gabeko zainketak egiten; hau da, egunean 4 ordu eta 25 minutu; gizonek, berriz, ordubete eta 23 minutu. Eskualde guztietan, emakumeek denbora gehiago ematen dute ordaindu gabeko zaintza-lanetan.

Hurrengo grafikoetan antzeman daitekeen moduan, emakumezkoek gizonezkoek baino denbora gehiago eskaintzen diote ordaindu gabeko zainketa-lanari. Horrek suposatzen du emakumeen artean ordaindutako lanari eskainitako denbora murriztagoa izatea. Datuak erakusten digute munduko herrialde bakar batek ere ez duela gizonen eta emakumeen arteko berdintasunezko ordaindu gabeko zainketarik erregistratzen.

Grafiko 3: Munduko pertsonak emandako denbora, minutuetan eta sexuaren arabera (2019)



Grafiko 4: Espainiako pertsonak emandako denbora, minutuetan eta sexuaren arabera (2019)



Iturria: NLE-k eskainitako datuetatik abiatutako berezko lanketa

Aurreko grafikoek aurkezten digute mundu eta Espainia mailan joera berdina ematen dela. Izan ere, emakumeak izango dira ordaindu gabeko zaintza-lanei minutu gehiago eskainiko dietenak. Hala ere, ezberdintasunak antzeman daitezke, Espainian emakumeek ordaindutako lanari minutu gutxiago eskaintzen diote mundu mailako emakumeen minutuekin alderatzen baditugu.


LAN MERKATUA

Bestalde, Espainiako Institutu Estatistikoak (INE) zaintza testuinguruan kokatzeko datu interesgarriak eskaintzen ditu. Lan-merkatuak erabateko protagonismoa izaten jarraitzen du eta horretatik guztiz baztertuta agertzen zaigu zaintzari lotutako eremu pribatua. Kasu honetan, emakumeak lan munduan sartzea eta soldata bat eskuratzea garrantzitsua izango da, autonomia eta aukera berdintasuna bermatzeko.

Hala ere, badirudi lan-merkatuan gizonezkoak nagusitzen direla. INE-k eskainitako azken datuen arabera, 2023eko laugarren hiruhilekoan emakumezkoen aktibitate tasa gizonena baino 9,14 puntu gutxiagokoa da, nahiz eta aldaketak jaso diren azken hamarkadan (INE).

Hurrengo grafikoak erakusten digu, 2023an gizonen artean lanaldi osoa burutzen dutenak (%93,4) nagusitzen direla. Aldiz, emakumeen artean asko dira lanaldi partziala daukatenak (%21,1).

Grafiko 5: Espainiako landunak, lanaldi-motaren eta sexuaren arabera (2021 II hiruhilekoa)
(%)




Iturria: INE-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lanketa

Lanaldi partzialaren arrazoiekin jarraituz, 2023. urtean emakumeek lanaldi partzialeko lanerako erakutsitako arrazoi nagusiak honako hiru hauek ziren: lanaldi osoko lanik aurkitu ezin izatea (%48,4), gaixo, ezgaituta edo adineko haurrak edo helduak zaintzea (%17,3) eta zehaztu gabeko beste arrazoi batzuk (%17,3). Ordea, gizonen artean, arrazoi nagusiak honako hauek izan ziren: lanaldi osoko lanik aurkitu ezin izatea (%52,1), irakaskuntza edo prestakuntza-ikastaroak jarraitzea (%18,8) eta zehaztu gabeko beste arrazoi batzuk (%18,7). Honetaz aparte, landunak jarduera-adarraren arabera aztertzen baditugu, etxeko jardueratan langile gisa daudenen artean %4 emakumeak dira eta %0,1 gizonezkoak (INE).

Honekin batera, INEk 2020an egindako Bizi-Kalitateari buruzko Inkestak mendeko pertsonen (haur edo heldu gaixoak, ezgaituak edo adinekoak) zainketen inguruko datuak eskaintzen dizkigu. Espainian, 2020an, emakumeen %24,3k (25 eta 54 urte bitartekoak) seme-alaba bat dauka eta lanaldi partzian lan egiten du, aldiz, gizonezkoen %4,1 bakarrik dago egoera honetan. Hiru seme-alaba edo gehiagoren kasuan, ehunekoak hurrengoak dira: emakumeen %25,1 eta gizonen %4,8.

Grafiko 6: Lanaldi partzialeko landunak, seme-alaba kopuruaren eta familia motaren arabera (%).



Iturria: INE-k eskainitako datuetatik abiatutako berezko lanketa

Familia motaren arabera, Espainiako lanaldi partzialeko emakume landunen ehunekorik handiena, 2020an, seme-alabak zituzten bi helduren etxekoa zen (%25,4), eta gizonena seme-alabarik gabeko heldu batena (%8,4). Nahiz eta 2023ean ezin diren seme-alaba kopuruen inguruko datuak

LAN MERKATUA EAEN

Euskal Autonomia Erkidego mailan, aktibitate tasa aztertzen badugu, 2023ko laugarren hiruhilekoan emakumezkoena %53,40koa eta gizonena %90,98koa da. Enplegu-tasari dagokionez, 16-64 urte arteko pertsonen artean emakumeak %48,28 dira eta %57,03 gizonezkoak. Kasu honetan, gizonen eta emakumeen enplegu-tasen arteko aldea %8,75koa da, Euskal AEn (INE).

Enplegu-tasa sektoreka analizatzen badugu, batez ere, emakumeak etxetik kanpo hezten dutenak eta nagusiki zaintzarekin lotutako jardueretan lan egiten dutenak direla azpimarratu beharra dago.

2023ko laugarren hiruhilekoan INEk jasotako datuek diotenez, zerbitzuetako lan arloan, gehiengoa, desberdintasun handiagatik, emakumeak (%89,1) dira, izan ere gizonekin (%57,7) konparatuta %31,4ko aldea dago. Aldiz, industria bezalako sektorean argi eta garbi nagusitzen dira gizonezkoak, esaterako, %8,7 emakume daude enplegatuta eta %31,3 gizon.

Azkenik, langabezia-tasari dagokionez, 2020an gizonezkoena 10,5koa eta emakumezkoena 10,6koa zen. Gaur egun, 2023eko hirugarren hiruhilekoaren datuen arabera, gizonezkoen langabezia-tasa 5,86koa eta emakumezkoena 6,84koa da.

LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA

EUSTAT -ek Euskadiko Estatistika Institutuak “Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta (2023)” gauzatzen du, EAEn biztanle landunek dituzten aukerak aztertzeke helburuarekin. Hala nola, euren lana familiarekin eta norberaren bizitzarekin uztartzeko dituzten aukerak aztertzen ditu. Inkestak hurrengo alderdiak lantzen ditu: lanaren alderdia, familiakoa, etxeko lanei eta familiaren zaintzari dagokiena (adingabeen eta mendeko pertsonen zaintza), eta norberaren bizitzarena, espazio eta denbora propioarekin lotua. Kasu honetan, zaintza lantzen gaudenez, begirada lehen bi alderditan jarriko da.

Mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzan dabilen pertsona guztietatik heren batek (% 32,9) zailtasun handiak ditu lana eta zaintza uztartzeko, 2022an baino ehuneko 4 puntu gehiago. Zailtasun berdina agertzen da seme-alaben zaintzari buruz galdetzerakoan, izan ere, biztanleria landunaren % 29,2k zailtasunak topatu ditu, 2022an baino ehuneko 1,1 puntu gehiago. Azkenik, landunen % 27,7k adierazi du zailtasun handia duela lana eta jarduera pertsonalak bateratzeko, %3,7 gehiago.

Etxeko lanetan eta seme-alaben eta mendeko pertsonen zaintzan egunean ematen den denboraren arabera, desberdintasunak daude gizonen eta emakumeen artean. Seme-alaben zaintzari dagokionez, etxetik kanpo lan egiten duten eta 15 urtetik beherako seme-alabak dituzten emakumeek batez beste 1,1 ordu gehiago ematen dituzte zaintza egoera berean dauden gizonek baino (4,7 eta 3,6 ordu, hurrenez hurren).

Halaber, landunek haien kargura dauden mendekoak zaintzen ematen dituzten orduak direla eta, batez beste, emakume okupatuek denbora gehiago ematen dute egunean gizonek baino. Hurrenez hurren, emakumeek 2,3 ordu eta gizonezkoek 1,9. 2020ko datuekin konparatuz, gizonek erabiltzen duten denbora kopurua 0,3 puntu igo da.

Azkenik, etxeko lanak landunen artean banatzeari dagokionez, emakumeek egunean gizonek baino 0,4 ordu gehiago ematen dituzte zeregin horietan (2 eta 1,6 ordu, hurrenez hurren).

Etxeko lanak egitean eginkizunen banaketa desberdina denez, emakume landunen % 13,3 ez dago batere pozik ezkontideak edo bikotekideak eskaintzen duen lankidetzarekin. Aldiz, gizon landunen ehuneko handi bat oso pozik dago bikotekidearen parte-hartzearekin (% 76,6). Balorazio horiek gorabehera, etxeko lanetan emandako denborarekin oso pozik daudela adierazi duten gizonen ehunekoa (% 55,6) emakumeen ehunekoaren antzekoa da (% 51).

Euskadin adingabeak zein senideak zaintzeko eskatutako eszedentziei dagokienez, emakumeek gehiengo absolutua dira bi kasuetan. Zehazki, 2019an 4.447 (%89,9) emakumek eskatu zuten eszedentzia seme-alabak zaintzeko, eta 516 (%10,4) gizonek, hau da, seme-alabak zaintzeko eskatu ziren 10 eszedentzietatik

bederatzi emakumeek hartu zituzten. Senitartekoak zaintzeko, 452 (emakumeek lan-eszedentziak eskatu zituzten (%74,8), eta gizonen kasuan, 157, hots, guztiaren %25,2 (Emakunde Zifratan 2020).

ZAINTZA PROFESIONALA

Lan merkatuaren inguruan aurkeztutako datuak osatze aldera, Gizarte Segurantzak eskaintzen dituen datuak osagarri izan daitezke. Hurrengo tauletan, araubide orokorrean sexuaren arabera afiliatuta dauden pertsonak ikus daitezke.

Taula 1: EAEko araubide orokorra sexuaren arabera (Nekazaritza E.B. Etxeko langileen E.B. sartu gabe) 2021ko Martxoa			
EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	EZ DAGO JASOTA	GUZTIRA
365.190,91	386.598,04	1,00	751.789,95
EAEko araubide orokorra (Nekazaritza Erregimen Berezia)			
EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	EZ DAGO JASOTA	GUZTIRA
244,60	1.873,30	0,00	2.117,91
EAEko araubide orokorra (Etxeko Lanen Erregimen Berezia)			
EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	EZ DAGO JASOTA	GUZTIRA
26.859,73	1.084,17	0,00	27.943,91

Iturria: Gizarte Segurantzak eskaintako datuetatik abiatutako berezko lanketa

Zentzu honetan, Etxeko Lanen Erregimen Berezian emakumezkoak nagusitzen direla antzeman daiteke. Hala ere, erregimen honek ez dio enplegatzaileari Gizarte Segurantzarik ordaintzeko betebeharra ezartzen hilean lan egindako ordu kopurua 60 baino txikiagokoa bada, ardura hori langileak bere gain hartu behar du. Horrek, etxeko langile askok ez kotizatzea ahalbidetzen du eta etxeko langileen kopuru erreala ez jakitea.

Honekin batera, Gizarte Segurantzaren alta emanda dauden zaintzaile-ez profesionalen ¹ gehiengoa emakumezkoak izango dira ere.

¹ Mendekotasun Legearen onuradunek laguntza pertsonala jasotzeko eskubidea dute; laguntza hori, printzipioz, zaintzaile profesionalak eman behar dute. Hala ere, administrazio publikoek zerbitzu horiek ziurtatzea benetan ezinezkoa denez, laguntzaren zati handi bat zaintzaile ez-profesionalak egiten dute, hau da,

Taula 2: EAEn sexuaren arabera alta emanda dauden zaintzaile ez-profesionalak. 2021ko Martxoa

EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
6.275,80	1.309,15	7.584,95

Iturria: Gizarte Segurantzaren eskaintak datuetatik abiatutako berezko lanketa

Ikus dezakegunez, datuek modu argian erakutsi dute sektore hori argi eta garbi feminizatuta dagoela, eta gizonen presentzia oso txikia dela. Aldi berean, atzerriko jatorriko pertsonen presentzia handia duen lan-sektorea da. Beraz, feminizitatutako eta arrazializatutako sektore baten aurrean aurkitzen gara.

Taula 3: Etxeko langile eta pertsona zaintzaile gisa lan egiten duten langileen bilakaera, Espainia 2008-2017 (milatan)

	2008		2013		2017	
	Guztira	Migratzailea	Guztira	Migratzailea	Guztira	Migratzailea
Etxeko pertsonalak*	549,6	336,9	477,6	301,2	452,0	287,5
Etxeko zaintzaile pertsonalak**	103,8	61,1	112,6	68,7	113,2	69,0
Guztira	653,4	398,0	590,2	369,9	565,1	356,5

*910ko CNO-11 kategorian okupatutako langileak etxeko langileak dituzten etxe pribatuetan.

**571 kategorietan (adinekoen etxeko zaintzaileak) eta 572 kategorietan (haurren zaintzaileak) lan egiten duten eta etxeko langileak dituzten etxe pribatuetan lan egiten duten langileen batura (kategoria horretan ez dira sartzen erizaintzako laguntzaileak). 2008ko datuak CNO-94ri buruzkoak dira, eta egitura horretan, adinekoen eta etxeko haurren langileak kategoriatan bakarrean zeuden, 512 kategorian, hain zuzen ere: "Pertsonak eta parekatuak zaintzen aritzen diren langileak (erizaintzako laguntzaileak izan ezik)".

Iturria: Díaz Gorfinkiel eta Martínez-Buján (2018)

arreta-zerbitzu profesionalizatu bati lotuta ez dauden familiako edo inguruko pertsonak. Kasu horietan, laguntza ekonomikoaz gain, zaintzaile ez-profesionalak Gizarte Segurantzako sistemaren baten barruan egon beharko du. Gainera, 6/2019 Errege deketu-legearekin, gizarte kotizazioak estatuak ordaintzera pasatu da, lehen ez bezala zaintzaile ez profesionalak ordaindu behar zituela.

“Emakume migratzaileak eta zaintza-lanak: etxeko sektorearen eraldaketak Espainian” aurkezten digun aurreko taulan modu argian adierazten digu emakume migratuen presentzia zaintza lanen esparruan. Ikus daiteke, urtez-urteko bilakaeran hauen agerpena gero eta nabarmenagoa dela kasu gehienetan.

Bestalde, Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak etorkinek beren jarduera ekonomikoa garatzen duten lan-arlorik garrantzitsuenak eskaintzen dizkigu. Jarduera ekonomikoari dagokionez, Euskadin Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden atzerriar gehienak ostalaritzan eta etxeko lanen sektorean lan egiten dute (Ikuspegi: 6).

Honetaz aparte, EAEko etxeko langileen lan-errealitatera gehiago hurbildu ahal izateko, INEk “Familia Aurrekontuei buruzko Inkestan” eskainitako datuak kontsultatu dira. Hauen arabera, 2020. urtean Euskadin 262.446,76€-koa zen etxe-zerbitzurako eta etxerako beste zerbitzu batzuetarako zuzendutako guztizko gastua. Hau beste autonomia-erkidegoekin alderatzen badugu, EAEkoa nahiko altua da.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak egindako “Euskal Familien eta Familia-Etxeetako Inkestak” familien eta etheen ezaugarri nagusiei buruzko informazioa aurkezten du. Kasu honetan, informazio horren artean kontuan hartzen du barneko etxe-zerbitzurik dagoen ala ez, familia-unitateko beste kide bat bezala, espazioa modu iraunkorrean partekatzean. Inkestaren arabera, 2015ean 6.213 etxek zuten barne-etxeko zerbitzua (EAEko etxe guztien %0,3), eta banaketa oso desberdina zen lurralde historikoen artean. Izan ere, zerbitzu hori Bizkaian nagusitzen zen, aldiz, Araban murriztagoa zen.

EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Sailak “EAEko etxeko langileen egoeraren eta horiek estaltzen dituzten beharren diagnostikoa (2019)” burutu zuen. Horren barnean, EAEko etxeko langileen lan-errealitatearen inguruko hurbilketa kualitatibo bat gauzatu zuten. Ondorio gisa, orokortzeko inolako borondaterik gabe, baina bai sektore horren benetako lan-egoeren isla adierazgarri gisa, Etxeko Langileen Elkartek ATH-ELEk 2018ko txostenean nabarmendutako datu nagusiak bildu zituzten eta horietatik esanguratsuenak bildu dira.

Lehendabizi, barne-erregimeneko langileei dagokienez, astean ordu gehien lan egiten dutenak dira, hots, 40 ordu baino gehiago, eta legeak ezartzen dituenak baino atsedeen-denbora laburragoekin. Kasu honetan, barne-erregimeneko emakume ia guztiak migratuak dira; eta ia laurden batek nazionalitate bikoitza du. Honekin batera, barne-erregimeneko langile gehienek lege kanpoko baldintzetan egiten dute lanaldiari eta atsedenei dagokienez. Besteak beste, barneko 10 langiletik 7k (%72,85) legeak ezartzen dituen asteko 60 orduak baino gehiago egiten dituzte. Honetaz gain, heren batek (%28,40) ez du eguneko atsedunik, hau da, etxetik ateratzeko askatasuna edo norberaren gauzetan aritzeko eta %22,22k ez du asteko atsedunik hartzen. Kasu gehienetan (%95,88) mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzen dituzte, ia beti langilearekin bakarrik bizi direnak. Azkenik, soldatari dagokionez, %90,12a ez dira

lanbide-arteko minimora iristen eta egoera administratibo irregularrean dauden langileek soldata baxuagoak kobratzen dituzte.

Bestalde, kanpo langile gehienak lanaldi partzialean daude. Asteazken zehar %26,36ak, 21 eta 39 ordu bitarteko lanaldiak egiten ari ziren. Zentzu honetan, kanpoko langileen soldatek lanbide-arteko minimoa betetzen dute kasu gehienetan. Ez-betetze kasuak (%21,49) ohikoagoak dira lanaldia zenbat eta luzeagoa izan. Kanpo langileen artean oso antzekoa da etxeko lanak egiten dituztenen eta haurrak eta helduak zaintzeko kontratatuta dauden ehunekoa. Hala ere, 2017an, etxeko lanetarako kontratuak %44,82raino igo ziren, aurreko urtean baino sei puntu gehiago, eta 2018an %49,28raino.

GIZARTEAREN ZAHARKITZEA

Gaur egun, biztanleria zaharkitze prozesu batean murgilduta dago. Ondorioz, alderantzizko biztanleria-piramide deitzen dena osatzen ari da, zeinetan populazio kopuru nagusia adin-tarte handieneko geruzetan biltzen den. Errealitate hori Europa osoan dago hedatuta eta EAEn modu nabarmenean antzeman daiteke. EAEko populazioaren artean, 505.005 pertsonak 65 urte baino gehiago dituzte 2021ean, zeinetatik 289.526 (%56,73) emakumeak diren, eta 215.479 (%43,27) gizonak.

Indize ezberdinak antzematen baitugu, 2021ean 65 urte eta gehiagoko biztanleriaren (%) zahartze-indizea 23koa zen EAEn. Bestetik, gainzahartze-indizea: 75 urte eta gehiagoko biztanleriari erreferentzia egiten diona %11,29koa zen. Lurraldeka aztertzen badugu, Bizkaia da lurralderik zahartuena, indize altuenak azaltzen dituen eta Araba gazteena.

Bestalde, mendekotasun-tasaren indize demografikoak, lan egiteko adinean dagoen biztanleria aktiboarekiko, mendekotasuna duten pertsonen proportzioa adierazten digu. Espainian mendekotasun tasa 2021ean %39,1 zen Euskal Autonomia Erkidegoaren. Honekin batera, Euskadin 2021ean 64 urtetik gorako biztanleen mendekotasuna %37,16koa zen.

Mendekotasunaren inguruko datu gehiago lantze aldera, EAEn, 2021ean mendekotasun egoeran dauden 118.700 pertsona zeuden. Horietatik, 100.100 pertsona inguruk 65 urte edo gehiago zituen. EAEren kasuan, guztira, 65.616 onuradunek jaso zuten prestazioa 2021eko urrian, eta 64.890 2022an, hau da, eskubidea zuten pertsona guztien %83,38. Ehunekoa estatuko batez bestekoa (%85,14) baino baxuagoa da. Kasu honetan, III. eta II. graduako onuradunak 39.740 dira eta I. graduako onuradunen kopurua 26.600 pertsonakoa da.

Bestalde, prestazioa jasotzeko zain dauden pertsonen ehunekoari dagokionez, %16,62 ziren 2021eko urrian. Kasu honetan, III. eta II. graduako prestazioa jasotzeko zain dauden onuradunen artean 5.057 dira eta I. graduako prestazioa jasotzeko zain dauden onuradunei dagokionez, 8.051 dira.

Espainiako autonomia-erkidego guztietatik prestazioa jasotzeko zain dauden pertsonen ehuneko handiena Errioxa, Katalunia, Kanariak eta Euskal Autonomia Erkidegoa dute.

2020ko martxotik 2021eko irailera bitartean, Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemari erregistratu ziren hildakoen datuetan, mendekotasuna eskatu zuten pertsonen artean 21.666 hildako zenbati ziren. Mendekotasuna eskatu zuten pertsonen gehiegizko heriotza-tasa 2020ko martxotik 2021eko irailera %17,8koa izan zen. Bestetik, prestazioa jaso zuten onuradunen artean, 15.995 pertsona hil ziren.

Azkenik, prestazioa jasotzen den lekuaren arabera, egoitzatik prestazioa jasotzen duten onuradunen gehiegizko heriotza-tasa nabarmen handiagoa da 2020ko apirilean etxean laguntza-prestazioa jasotzen zuten onuradunen gehiegizko heriotza-tasa baino.

2021eko datuen arabera, 0-15 urteen artean 315.666 adingabe bizi dira EAEn, eta EAEko biztanle guztien %14,27 dira. Hauek, sexuaren arabera bereizten baditugu, 153.264 neska eta 162.402 mutil dira.

15 urtetik beherako biztanleen ehunekoa zertxobait txikiagoa da Bizkaian (%13,60) eta pixka bat handiagoa Gipuzkoan (%14,81) eta Araban (%15,40). Nolanahi ere, hiru lurraldeek oso ehuneko txikia dute, baina Araba besten aurrean nola nabarmentzen den hauteman dezakegu.

Taula 4: 15 urtetik beherako biztanleak EAEn

2021	0-15 urte bitarteko adingabeak	% 0-15 guztiarekiko
Araba	51.366	15,40
Bizkaia	156.862	13,60
Gipuzkoa	107.438	14,81
EAE	315.666	14,27

Iturria: EIN. Etengabeko Erroldaren Estatistika. 2021

EAEn haur eta nerabeek pisu txiki samarra dutela ondorioztatu daiteke. Honek lotura zuzena dauka biztanleriaren zahartze-prozesuarekin. Izan ere, gero eta populazio zaharkituagoarekin aurkitzen gara, errealitate hori Europa osoan dago zabalduta, eta nabarmenagoa da EAEn. Hurrengo grafikoan populazio-talde horren pisua adin-tarte desberdinen arabera ikus daiteke. Adin-tartea handitu hala, ehunekoa ere handitzen dela hauteman daiteke.


ZAINTZA LANAK ETA BATERAGARRITASUN ERANTZUKIDEA DURANGON

Diagnostikoaren analisiarekin hasteko, Durangoko ezaugarri demografiko batzuk aztertuko ditugu. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren ikuspegitik desberdintasun eta behar posibleak ikustatzeko asmoz, Durangoko populazioari buruzko sexuaren arabera banandutako datu batzuk adieraziko dira, datu soziodemografikoak, lan-merkatukoak, ekonomia edota udal mailakoak nagusiki.

POPULAZIOA

Durango Bizkaiko udalerri bat da, Durangaldeko eskualdean dago kokatuta, udalerri hauekin batera: Abadiño, Atxondo, Berriz, Elorrio, Ermua, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Otxandio, Zaldibar eta Zornotza. 29.609 biztanle ditu eta hauetatik 15.399 (%52) emakumeak dira, eta 14.507 (%48) gizonak. (Eustat, 2024).

GRAFIKO 7 : DURANGOKO BIZTANLERIA SEXUAREN ARABERA (%)



Iturria: Estatistika Erakunde Nazionalaren Errolda Jarraitua (2022ko urtarilaren 1eko datuak)

Durangoko egitura demografikoa jarraian dagoen biztanleria piramidean dago aurkeztuta.

TAULA 5: DURANGOKO DATU DEMOGRAFIKOAK

	Urtea	Udalerria	Eskualdea	Bizkaia	EAE
Emakumeak (%)	2024	51,3	49,6	50	49,8
Gizonak (%)	2024	48,7	50,4	50	50,2
Hautzaroaren indizea: 0 eta 14 urte	2024	13,7	13,9	12,5	13,1
bitarteko populazioa(%)	2024	19,6	21,6	23,6	23,2
Zahartzearen indizea. 65eko eta urte gehiagoko populazioa (%)	2024	9,9	10,8	12,1	11,7

Zahartze handiaren indizea. 75eko eta gehiagoko populazioa (%)	2023	5,9	6	6,1	6,5
Jaiotza tasa gordinaren (%)	2023	-3	0,8	1,3	1,6
Kanpoko migrazio kitapena (%)	2023	-3,1	-3,9	-4,8	-4
Hazkunde tasa begetatiboa (%)	2024	8,3	8,5	8,1	8,5
Atzerriko populazioa (%)	2024	13,7	13,9	12,5	13,1

Iturria: OPENDATAk eskainitako datuetatik aurrera berezko lanketa

Aurreko taularen indizeetan ikus daiteke aztergai den udalerririk datu positiboa erakusten duela haurtzaroaren indizeari dagokionez, aurkeztutako eremu geografikoekin konparatuta. Hala, 2021 eta 2023 urteen artean jaiotako umeak 569 izan ziren, beraz, 2023 bukaeran 0 eta 3 urte bitartean zituzten umeak 569 ziren.

Zahartzea eta zahartze handiaren indizeekin alderatzerakoan, berriz, ehunekoak behera egiten du, zifra baxuena lortuz. Jaiotza tasa gordinaren zifra ere eskualdean, lurraldean eta komunitatean baino baxuagoa da. Bestetik, atzerriko populazioaren zifrak nahiko antzeko mantentzen diren bitartean, kanpoko migrazio kitapenak datu negatiboa erakusten du, hots, Durangon emigrazioa handiagoa dela adieraziz.

Atzerriko populazioak Durangoko populazio guztiaren %8,31a irudikatzen du EAEkoa (%8,52) eta Bizkaikoaren (%8,05) oso antzekoa. Biztanleria hau sexuaren arabera desberdintzen bada, %47,93 emakumeak eta %52,07 gizonak dira (Opendata).

Bilakaera aztertuz, 2018ko datuek biltzen zutenaren arabera, atzerriko populazioa %7,64koa zen, eta hurrengo urteetan goranzko joera nabarmendu da, %8,31 izan arte.

TAULA 6: DURANGOKO ATZERRIKO POPULAZIOAREN BILAKAERA (%)


Durangoko atzerriko populazioaren bilakaera (%)				
2018	2019	2020	2021	2022
7,64	8,01	8,79	8,31	8,31

Iturria: OPENDATAk eskainitako datuetatik aurrera berezko lanketa

Atzerrian jaiotako populazioa herrialde ezberdinetatik heldu da Durangora. Orokorrean, atzerritar gehienak Amerikatik datoz, guztien %53,55a, eta oro har ez da ezberdintasun handirik ikusten emakumeen eta gizonen jatorrietan. 2013an Amerika gailentzen zen baita ere, atzerrian jaiotako populazioaren %47,72 suposatuz.

GRAFIKO 8 : ATZERRIAN JAIOTAKO POPULAZIOA SEXU ETA JATORRIKO KONTINENTEAREN ARABERA –


TALDE OROKORRAK



Iturria: Estatistika Erankunde Nazionala: Errolda jarraituen estatistika 2022

Interesgarria da jatorrietan gehiago zehaztea. Jarraian jatorrien talde orokor nagusietan herrialdeen zehazpena.

GRAFIKO 9 : ATZERRIAN JAIOTAKO
POPULAZIOA SEXU ETA JATORRIKO
HERRIALDEAREN ARABERA – TALDE
OROKORRAK



Ikus daitekeenez, zehaztu gabeko Amerikako eta Afrikako herrialdeak gailentzen dira jatorrietan, eta Europari dagokionez, Errumanian jaiotakoak kopuru handia nabarmentzen dela esan beharra dago. Bestetik, kopuru baxuenak, Asian eta Ozeanian jaiotakoak artean ematen dira. Sexuari erreparatzen badiogu, Amerikan jaiotako gehiengoa emakumeak direla konturatuko gara eta Afrikaren kasuan berriz, gizonak. Europako herrialde desberdinetan zifra antzekoak ikus daitezke, emakume eta gizonen artean desberdintasun nabaririk agertu gabe. Aipatzekoa da ere, orokorrean jatorri anitz identifikatu daitezkeela Durangoko atzerriko populazioan, emakume zein gizonen kasuan. Ozeaniaren kasuan ez da zehazten herrialderik.

Iturria: Estatistika Erakunde Nazionala: Errolda jarraituaren estatistika 2022

LAN MERKATUA

Lehenik eta behin 2019ko ekaineko datuak bildu dira, jarraian egungo datuekin konparaketa egiteko, hau da, 2023ko ekainekoekin. Aurkeztuko diren adierazle batzuetan datuak beste data batzuei dagozkie. Edozein kasutan, eskuragarri dauden daturik eguneratuenak azaltzen dira. Langabezi indizearen joera aztertzeko 2019ko eta 2023ko datuak alderatu dira joerari eta bilakaerari erreparatu ahal izateko. Lanbiden argitaratutako langabezia indize berrienari (2023ko martxoa) erreparatuz, Durangokok biztanleriaren langabezia-tasa % 7,8koa da.

TAULA 7: LANGABEZIA INDIZEA (%) (2019 EKAINA – 2023 EKAINA)

2019 (EKAINA)	GUZTIRA	Emakumeak	Gizonak	Genero arraila
EAE	10,4	12,4	8,6	3,8
Bizkaia	11,4	13,3	9,6	3,7
Durango	8,4	10,4	6,5	3,9
2023 (EKAINA)	GUZTIRA	Emakumeak	Gizonak	Genero arraila
EAE	9,9	11,6	8,1	3,5
Bizkaia	10,7	12,4	9,00	3,4
Durango	7,8	9,4	6,2	3,2

Iturria: Lanbidek eskaintako datuetatik aurrera berezko lanketa

2019eko datuekin alderatuz gero, azken 5 urteetan langabezia-indizeak behera egin du, oso nabarmenki ez bada ere. 2019an, Durangon langabezia indizea %8,4-koa zen, eta gaur egun indize hori %7,8koa da. Datuak emakumeen eta gizonen artean konparatuta, Durangon 2019an langabeziarekiko genero arraila 3,9koa zen, hau da, gizonek zuten langabezia indize txikiagoa emakumeek baino. 2023ko ekainean arraila txikitu dela ikus daiteke. Gaur egun, langabezia indizean arraila txikiagoa da Durangon, Bizkaian eta EAEn baino, duela 5 urte ez bezala.

Bestalde, LANBIDEk eskaintako datuen arabera, 2023ko ekainean zehar 741 lan-kontratu erregistratu dira Durangon. Hauetatik %52,1 (483) emakumeentzako izan dira eta %47,9 (444) gizonezkoentzat, hau da, kontratuen erdia baino gehiago emakumeei dagozkie. Kontratu hauek 355 gizon eta 386 emakumeri egin zaizkie.

Adinari dagokionez, joera antzekoa ikus daiteke emakume eta gizonen artean. Kontratututako pertsona gehienak 24 urtetik beherakoak dira. Eta adinak gorantza egin ahala, kontratatu gutxiago ikus daitezke.

Prestakuntza-mailari dagokionez, "Batxilergoko" eta "derrigorrezko" ikasketa-maila duten pertsonen egin zaizkie lan-kontratu gehien, emakume zein gizonen kasuan. Gizonei dagokienez, hurrena Lanbide Heziketako ikasketak dituztenak izan dira ondoren lan kontratu gehien izan dituztenak, eta aldiz, emakumeen kasuan unibertsitateko ikasketak dituztenak nabarmentzen dira.

Kontratuen modalitatea kontutan izanik, gehienak aldi baterako dira. Modalitate honetan hain kontratazio kopuru handia egoteak honakoak pentsarazten ditu: iraupen laburreko kontratuak direla, ez dutela lan-egonkortasunik eskaintzen eta batez ere, emakumeen enpleguaren behin- behinekotasuna eta ezegonkortasuna iraunarazten dutela. Izan ere, gizonezkoen kasuan, lanaldi osoko modalitatea nabarmentzen den bitartean, emakumeen kasuan, lanaldi partzialeko kontratu gehiago egin dira.

Bestalde, kontratuen gehiengoa lanaldi partzian gauzatzen da.

TAULA 8 : EMAKUME ETA GIZONEN KONTRATU KOPURUA ETA MOTA (2023KO APIRILA)

Mota	Emakumeak	Gizonak
Mugagabeak	57	67
Aldi baterako	203	274
Lanaldi osoa	124	284
Lanaldi partziala	136	57

Iturria: LANBIDE-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea.

DURANGOKO ZAINZAILA ETA ZAINDUEN BEHARRAK ETA ESKAKIZUNAK

NOLA ULERTZEN DUGU ZAINZTA?

Zaintzaren kontzeptuaren inguruan asko hausnartu da azken urteetan eta interesgarria da jakitea diagnostiko hau egiteko parte hartu duten pertsonak zelako definizioa ematen duten zaintzaren inguruan.

Hainbat eta hainbat definizio jaso ditugu prozesuan parte hartu duten pertsonen galdetzerakoan, intuizioetatik abiatuta batzuk eta hausnarketa kolektiboetatik beste batzuk. Hurrengo lerroetan definizio horietatik abiatutako hainbat ezaugarri adieraziko dira.

<i>“Cuidar es sentirse bien física y mentalmente, es sentir que estas acompañada o acompañado”.</i> Zaintzea fisikoki eta mentalki ondo sentitzea da, lagunduta edo lagunduta zaudela sentitzea da.	<i>“El trabajo de cuidados debemos entenderlo no como un concepto acotado, sino como algo más amplio, algo que al final dura toda la vida. Deberíamos de entenderlo desde una mira de liberación, de colectivo, de repartir la responsabilidad”</i> Zaintza-lana ez dugu kontzeptu mugatu gisa ulertu behar, baizik eta zerbait zabalago gisa, bizitza osoan irauten duen zerbait bezala. Liberazioaren, kolektiboaren eta erantzukizuna banatzearen ikuspegitik ulertu beharko genuke
<i>“Dentro del cuidado, se habla de necesidades pero no todas las necesidades están relacionadas con la dependencia, sino también con todo lo que tenga que ver con el bienestar social”.</i> Zaintzaren barruan, premiez hitz egiten da, baina premia guztiak ez daude mendekotasunarekin lotuta, baita gizarte-ongizatearekin zerikusia duen guztiarekin ere	<i>“Zaintzan eta tratuan pertsonaren duintasuna bermatzea ezinbestekoa da, zaintzailea eta zaindua izango den pertsonen arteko lotura, konfiantza... lantzeko informazio eta baliabideak, zaintzailearen autozaintzarako ere.”</i> Garantizar la dignidad de la persona en el cuidado y en el trato es imprescindible, información y recursos para trabajar la relación entre la persona cuidadora y la persona cuidada, la confianza... también para el autocuidado de la persona cuidadora
<i>“Antes todos los problemas se resolvían en familia, sin embargo, ahora que vivimos en un entorno mucho más individualista, los recursos económicos (dinero público) son limitados para poder llegar a ese mínimo nivel de autonomía (para pagar una residencia, una persona que cuide, espacios,...)”.</i>	

"Lehen, arazo guztiak familian konpontzen ziren, baina, orain, askoz ere ingurune indibidualistagoan bizi garenez, baliabide ekonomikoak (diru publikoa) mugatuak dira gutxieneko autonomia-maila horretara iritsi ahal izateko (egoitza bat, zaintzen duen pertsona bat, espazioak... ordaintzeko)".

Definizio hauetatik abiatuta, eta lehenengo saio hartan hitz egindakoa kontuan hartuz, aipatu beharreko hurrengo kontzeptuak eta azaleratu beharrekoak jartzen dira hemen:

- Merkantilizazioa, pribatizazioa eta irabazi asmoa → Bitartekaritza.
- Prekarizazioa → lan asko dago eta eskaintza gutxi, naturalizazioa eta baliogabetzea
- Prekarizazioa → zaintza oso zabala da eta langileek ezin dute dena haien gain hartu.
- Irabazi asmoa → zainduentzako eta zaintzaileentzako baliabide txarrak.
- Zaintza ez profesionala → anitza
- Aitortza eta baliabideak → Diru-hornidura eta aitortza desberdintasuna (genero aldetik etab.)
- Elkarrekikotasuna → egiturazko arazo korapilatuak
- Erakundeen argitasun → konponbideak lantzeko zailtasuna
- Zaintzarako espazio eza → arautuak eta ez arautuak (profesionalekin eta gabe)
- Sare zabalaren falta → familiarizazioa (gora eta behera)
- Feminizazioa → profesionala eta ez-profesionala
- Denbora → egunerokotasuneko denbora falta + prozesu luzeak + zaintzaren gorpila + zerbitzuetako lehentasunak erabaki beharra
- Estigmatizazioa → egoera askoren ikusgarritasun falta eta estigma
- Ezagutza falta → zerbitzuak, prozesuak, konpetentziak
- Zaintzaren zeharkakotasuna → zerbitzuen arteko koordinazioa, duplikazioa ekidin


Saio parte hartzailean eztabaidatutako definizio eta kontzeptuak hurrengo orrietan errepikatzen joango dira zaintzaileen, zainduen, arduradunen zein eragileen eskuetatik.

LANDA LANEAN PARTE HARTU DUEN PERTSONEN PROFILA

Hasteko, herritarren artean banatutako inkestan 47 erantzun jaso ditugu, erantzun kopuru txikia izan da, hala ere, bertan azaldutako erantzunetatik abiatuko gara, elkarriketatako informazioarekin batera Durangoko zaintzen inguruko argazki bat egiteko.

Parte hartze nagusia emakumezkoena izan da, izan ere 47 erantzunetatik 32 emakumezkoenak izan dira, 12 gizonenak eta 3 beste genero identitate bat daukatenak. Hau da, inkesta erantzun dutenen %68a emakumeak dira, %26a gizonezkoak eta %6a ez bitarrak edo beste genero batetakoak.

10. GRAFIKOA. GALDETEGIAREN ERANTZUNAK GENEROAREN ARABERA




Era berean, 18 elkarrizketa burutu dira azterlanean zehar, 31 pertsonari, 29 emakume eta bi gizon. Bi informazio iturri hauetatik eskuratu da hurrengo azterlanean aztertzen diren dinamikak, errealitateak eta beharrak. Hauekin batera, bi saio parte hartzaile burutu dira, hasieran aipatu den moduan, ekarpenak egiteko helburuarekin.

Adinari erreparatuz, galdetegia erantzun duen gehiengoa 31 eta 50 urte bitartean kokatzen da, honi jarraikiz 66 eta 80 urte bitartean daudenak agertzen dira. Adina generoaren arabera aztertuta antzerako datuak lortzen ditugu, 31 eta 50 urte bitartean dauden emakumezkoak gehiago izanda. Adieraztekoa da, emakumeen parte hartzea handiagoa izanik, adin tarte desberdinetako emakumeek hartu dutela parte galdetegian.


Honetaz gain, elkarrizketetan parte hartu duten emakumeen adina ez da adierazgarria, izan ere, hainbat izan dira parte hartutako emakumeen adin eta egoerak. Prozesu osoan zehar ikusitakoarekin bat dator datu hau, alegia, adin ertaineko emakumeak direla Durangoko zaintzaile nagusiak.

11. GRAFIKOA. GALDETEGIAREN ERANTZUNAK ADINA ETA GENEROAREN ARABERA



Galdetegian jaioterriari buruz galdetu da, eta emaitzei erreparatuz, gehiengoak adierazten du Euskal Autonomi Erkidegokoa dela. Parte hartzaileetako gehienak durangarrak izanik. Era berean, burututako elkarrizketak kontuan hartuz, azterlanean parte hartu duten gehiengoa ere, durangarra edo Durangaldekoa izan da. Honek, prozesuan zehar izandako zailtasun bat agerian uzten du, migrazio prozesuak bizi izan dituzten emakumeen parte hartzea ahalbidetzea.

12. GRAFIKOA. DURANGOKO BIZTANLERIA JATORRIA ETA GENEROAREN ARABERA



Gauzak horrela, lau talde handitan banatu ditugu prozesuan zehar jaso ditugun behar eta eskakizunak: zaintzaile ez profesionalak, zaintzaile profesionalak, pertsona zainduak eta udal baliabideak.

ZAINTZA EZ PROFESIONALA

Zaintzaile ez profesional moduan ordaindutakoak ez diren zaintza lanak burutzen dituztenak identifikatu ditugu: Pertsona nagusien zaintza, haurren zaintza, berdinen artekoa, menpekotasun egoeran dauden pertsonena, komunitatearena...


ZAINTZA EZ PROFESIONALA ETA LAN PRODUKTIBOA

"Lan banaketa klasikoa eraldatu egin da, gizon hornitzaile-etxeakoandre izatetik, gizona enplegatua-emakumea lanaldi bikoitzarekin eta lan merkatu produktiborako sarrera aukera okerragoekin izatera igaro da" (Perez Orozko, 2014).

Azterlanean argi geratu da zaintza orokorrean emakumeek burutzen dutela, eta zaintza ez profesionalaren kasuan, hau ere feminizatua dagoela. Emakumeek etxeetatik kanpoko lan ordaindua egiten dute, eta etxe barruko eta kanpoko ordaindu gabeko lana. Honek, bizitzako bi esparru horietan baldintza okerragoak izatera bideratzen ditu: denbora falta, diru-sarrerak murriztea, aisialdirako espazio eza, pentsio murrizta...

Ordaindutako lanaren inguruan galdetzean, inkestatutako gehiengoak ordaindutako lanean diharduela baieztatzen du. Kasu honetan, generoaren arabera aztertuz emakumeen gehiengoak ordaindutako lanean dago, gizonen kasuan erdia eta beste genero batzuen gehiengoak ez du lanik egiten.


13. GRAFIKOA. ORDAINDUTAKO LANA GENEROAREN ARABERA



Lan egiten ez duten pertsonen zergatiengatik galdetu dugu, izan ere, nahiz eta ehuneko txikiena ageri, parte hartu dutenen heren batek ja ez du ordaindutako lanik egiten. Interesgarria da arrazoieta sakontzea. Guzti hori kontuan izanda, ezezko erantzunak hartu ditugu kontuan arrazoieta sakontzeko. Kasu honetan, ordaindutako lanik ez egitearen arrazoi nagusia, bai emakume zein beste parte hartzaileena, jubilatuta dagoelako izan da.

Lanari buruz galdetzean, zein arlotan lan egiten duten galdetu da, zehazki ea zaintzen arloan jarduten duten. Kasu honetan gehiengoak ezezko erantzuna eman du, baina badira zenbait pertsona zaintzetan egiten dutela lan, eta honetan gehiengoak emakumea da. Interesgarria da, honekin batera, zaintzan lan egiten duten pertsonetako batzuk, hezkuntza edo gizarte zerbitzuak barne hartu dituztela zaintza arlo moduan, eta honek ere, zaintzaren inguruko kontzeptuaren eraldaketa beterranzko joera irudikatzen du.

14. GRAFIKOA. ZAINITZA ARLOAN LAN EGITEN DUTENAK GENEROAREN ARABERA




Bestalde, kontziliazio neurrietan zentraturik, emakumeen erdiak horrelako neurriren bat hartu izan du bizitza pribatua eta lan bizitza uztartzeko. Era berean aipatzekoa da, inkesta egindako momentuan lan ordaindua egiten ez zeuden emakumeen artean %20 eszedentzian zegoela edo egon dela adierazi duela.

Antzerakoa gertatzen da beste genero batetakoak direnen artean, nahiz eta inkesta egiteko momentuan ordaindutako lanik ez egin, lanaldi murrizketa, ordutegi aldaketa eta telelana hartu izan dute neurri bezala.

Ondorengo grafikoan (15) ikusten den bezala, **emakumeek kontziliazio neurri gehiago hartzen dituzte**, batez ere **lanaldi murrizketa**. Nahiz eta hori izan neurri orokortuena, **eszedentzia** eta **ordutegi aldaketa** ere badira emakumeek ohikotasunean hartzen dituzten neurriak. Interesgarria ere bada aipatzea %5ak ez daukala inolako neurririk hartzeko aukerarik. **Gizonezkoen** heren batek, aldiz, **lanaldia murrizten** du kontziliatzeko eta % 17ak bere **ordutegiak aldatu** izan ditu eta **telelana** egiten du.

15. GRAFIKOA. ORDAINDUTAKO LANEAN DAUDENEN KONTZILIAZIO NEURRIAK GENEROAREN ARABERA



Neurrietan sakonduz, inkestatuei uztartzeko beste neurririk proposatzeko eskatu diegu. Horretan, honako erantzunak jaso dira:

9. TAULA. KONTZILIAZIO NEURRIEN PROPOSAMEN IREKIA GENEROAREN ARABERA

Emakumeek egindako proposamenak
Amatasun eta aitatasun bajak handitzea... Familia eredu desberdinak daudenez eta orokorrean familia nuklearrari lotuta soilik eskumenak existitzen direnez, esango nuke behar denean lagun edota bidaide desberdinak zaintzeko baimenak ere eskaintzea ondo legokeela (Familia nuklearretik kanpoko harreman egituretan)
Murrizketen konpentsazio ekonomikoak altuagoak izatea edota zaintzaile publiko gehiago/ordu gehiago/baldintza ez hain zorrotzak zerbitzu hori izateko
Sí, ampliar permisos y facilidades para conciliar (por ejemplo: permisos para acompañar a los hijos al médico o cuando están enfermos)
Horarios más flexibles

Lagun arteko zaintza. Denbora bankua trukean oinarritutako konfiantza sarea
Umearekin egoteko beharrezko egunak hartzea
Malgutasuna permisoa edukitzeko
Gizonek egindako proposamenak
Lanaldi murrizketak
Ampliación de permisos de paternidad
Ez bitarrek egindako proposamenak
Ayudas económicas

Neurriez gain, kontziliazioarekin lotutako beste eragin edo ondorio batzuk ere aztertu dituzte. Interesgarria da jakitea lan-eremuan eraginik izan dutela dioten gizonen artean etxebizitza aldatzea, ezohiko ordutegietan lan egitea edo gurasoen laguntza erabiltzea eragin dutela. Bestalde, emakumeen eta ez bitarren kasuan, izandako eraginak euren lanpostuetan eragin zuzena izan du, hau da, lana uztea edota sustapenari uko egin behar izatea izan dira adierazi duten bestelako eraginak.

Aurretik esan bezala, erantzun hauek bat datoz elkarriketetan aipatutako iritzi eta errealitateekin, izan ere, oraindik gizartean ematen den soldata arrakala dela eta, edo hau justifikazio oinarri izanda, emakumeek uzten diote normaltasunean lan produktiboa egiteari, honek dakartzan baliabide materialen galerarekin.

Azken hau elkarriketetan eta Durangaldeko gizarte zerbitzuen memorian agertutakoarekin, izan ere, **emakumeak dira, hein handi batean ordaindutako lana utzi eta zaintzara bideratzen direnak**. Aurretik aipatutako hainbat arrazoiengatik gertatzen da hau, eta gerora, askoz zailagoa da lan merkatura bueltatzea. Bai lan merkatuaren baldintzengatik, eta baita erantzukizun eta erru sentimenduengatik.

“cuando nació (...) ya veía que me iba a costar y dije bueno, me tomo dos añitos tengo los hijos y luego ya me reincorporo, lo que pasó es que cuando llegó el momento de decir bueno me pongo a trabajar o no me pongo a trabajar, mi marido me recomendaba que me pusiera a trabajar pero la sensación de dejarle era superior a lo que me aportaba la sensación de trabajar”


Era berean, lan produktiboa uzteak etorkizunera begirako hainbat arazo ekar ditzake, indarkeria ekonomikoa, psikologikoa, isolamendua eta abarrekin harreman handia daukatenak *“hay muchísima gente que no puede hacerlo, no puede hacer las dos cosas, es decir, hay gente que dejar de trabajar le supone, así entre mujeres, tomar la decisión te supone que luego te puedas encontrar una situación muy precaria, como conozco a mucha gente”*.

Hau bat dator pertsona nagusien zaintza zerbitzuen, mankomunitatearen, Geu Be elkartearen eta osasun mentaleko zentroaren arduradunekin izandako elkarrizketetan irtendako iritziekin, **emakumeak direla gehien bat zaintza behar handiak agertzen direnean lana utzi edo kontziliazio neurri gehienak hartzen dituztenak**, alegia. Arduradunen esanetan, **familiako pertsonak zaintzeko ardura nagusia, gaur egun, emakumeek izaten jarraitzen dute**, nahiz eta azken urteetan gizon gehiagok hartzen duen ardura hau, hein handi batean emakumeak dira zaintza zerbitzuetara jotzen dutenak, edo behintzat hauekin interlokuzioa egiten dutenak.

ZAINTZEN BANAKETA. DESOREKA.

Datuen arabera, etxeko edota zaintza lanak bikotearekin elkarbanatzen dira hein handi batean, batez ere beste genero batekin identifikatzen direnen artean %67a, emakumeak %50a eta gizonezkoa %42a izanik. Honetan, adieraztekoa da emakumeen %9k bakarrik egiten dituela zaintza-lanak, eta gizonek ez dute egoera horren berri ematen. Bestalde, gizonek emakumeek baino gehiago jotzen dute kanpoko laguntza kontratatzerara, eta gehiago dira zaintza lanak inorekin partekatzen ez dituztenak (% 33 eta % 16, hurrenez hurren). Horrek genero-desberdintasunak erakusten ditu zaintza-dinamiketan, non emakumeek familia-sareetan laguntza handiagoa izateko joera duten; gizonak, berriz, gutxiago daude beren hurbileko ingurunearen mende, edo kanpo-konponbideetara jotzen dute.

16. GRAFIKOA. NOREKIN PARTEKATZEN DUTEN ZAINTZA LANAK GENEROAREN ARABERA



Aurretik aipatu den moduan, Durangaldeko mankomunitateak Zaindu programa bideratzen du. Programa honen baitan zaintzaile ez profesionalei ematen zaie zaintza. Horrela, Zaindu zerbitzuaren arduradunetako batekin edukitako elkarrizketan, honen inguruko ideia bat nabarmendu zen, alegia, emakumeak direla familietako zaintzaile nagusiak. Honekin batera, gizon eta emakumeen artean ematen den desberdintasun garrantzitsu bat azaleratu zen, izan ere, emakume asko gizonak (euren bikoteak) baino

gehiago bizi dira logika heteronormatiboen baitan emakumeak euren bikoteak baino gazteagoak izan ohi direlako, eta gainera, bizitza itxaropen handiagoa dutelako.


Aurreko ideiarekin lotuz gero, emakume nagusiak egoera berezietan topatzen dira dependentzia egoeretara heltzen direnean: aurrezpenik ez dute etxean eta dohainik zaindu izan dutelako, euren bizitzako azken urte aktiboak zaintzan eman dituzte, eta beraiek zaintza edo laguntza behar dutenean ez dute doako laguntzarik ez laguntza ordaintzeko diru nahikorik.

“Gainera ikusten duzu, emakumeak daude lan intimoago baten, dutxa, garbiketa... eta gizonak igual bideratuko du bere zaintza lana aisialdira, pasoa etab. Gizonak arinago erabiliko dituzte zerbitzuak, eskatuko dute laguntza... eta emakumeek berriz, eramango dute zaintza hasta que no puedan más”.

Oro har, genero guztietako erantzun gehienak senitartekoek eta gertuko lagunek emandako zaintzari dagozkio, eta aukera formaletara gutxiago jotzen da, hala nola, eskola-zaintzako zerbitzuetara edo kontratatutako pertsonen erabilerara. Hala ere, emakumeek gehiagotan aipatu ohi dituzte gizarte- eta familia-laguntzako aukera horiek.

Honek beste zailtasun handi baten berri ematen du, familia- edo lagunarteko-sarerik ez edukitzearena, alegia. Izan ere, zaintzaile profesional pribatuak komentatu dutenez, atzerriko jatorria izateak familia-sarearen falta sentitzea eragiten du askotan. Hala ere, aukera bezala ikusten dute lagunarteko sareak sortzearena, elkarriketatutako bi pertsonak, esaterako, inguruko sarearen babes handia sentitu dutela esan dute, zaintza behar berezi eta iraunkorrak izan dituztenean *“en Durango hemos creado una buena red de apoyo”*.

17. GRAFIKOA. NOREKIN PARTEKATZEN DUTEN ZAINITZA LANAK GENEROAREN ARABERA



Mendekotasun egoeran dauden pertsonak (seme-alabak edo adinekoak) kontziliatzeko edo zaintzeko pertsonak izan dituzten zailtasunen inguruan sakontzen dugunean, ohartzen gara emakumeek zailtasun batzuk aipatzen dituztela, batez ere baliabide ekonomikoekin, denboraren kudeaketarekin, laguntza egokirik ezarekin eta ordutegien bateraezintasunarekin lotutakoak. Bestalde, gizonak ordutegiei eta lan-

kargari lotutako alderdiak aipatzen dituzte. Azkenik, beste genero bateko pertsonen ekarpenak, batez ere, laguntzeko zailtasunei eta zaintzeko baliabide faltari buruzkoak dira.


10. TAULA. ZAINKETEN INGURUAN IZANDAKO ZAILTASUNAK GENEROAREN ARABERA

Emakumeak
Zaintza lanekin estresatuta zegoen amarentzako arnas guneak eskaintzeko zailtasun ekonomikoak.
Nagusien (menpekotasun egoeran daudenen) erresidentzietarako sarbide mugatua, zailtasun administratiboak, denbora tarte luzeegiak... eta itxaronaldi horretan erresidentzia pribatura eramane behar izatea, horrek dakarren gastu ekonomiko eutsiezinarekin. Garestiegiak dira, edozeinek ezin ditu ordaindu.
Gurasoak haien bizitza egiteak nahi izan edo beste zeregin bat eduki ta beste pertsona bati mesedea edkatu behar.
Lan murrizketa ezin egin edo beste era batera lan egiteko aukeratik ez izatea
Lanaz aparte, zaintza ordu asko dira
Euskaraz hitz egiten duen zaintzailerik ezin izan dugu kontratatu.
La lactancia
Horarios
Gizonak
Ordutegiak aldatu beharra
Beste genero batekoak
Los que implica cuidar
Poca ayuda


Zaintzaren banaketari buruzko iritzietan sakontzen dugunean, ikus dezakegu iritziak banatuta daudela. Beren ardurapean mendeko pertsonaren bat duten ala ez kontuan hartuta, ikusten dugu pertsona bat ardurapean duten emakumeen artean iritzi polarizatuagoak daudela; hala ere, bost emakumetik bik adierazi dute ez dagoela ados etxeko zaintza-lanak banatzeko moduarekin, eta datu hori % 9ra murrizten da beren ardurapean inor ez duten emakumeen artean. Horren aurrean, herenak adierazi du pozik dagoela etxean zaintza lanak banatzearekin.

Gizonen kasuan, norbait beren ardurapean dutenek asebetetze ertaina adierazten dute, laurden bati aldiz, ez zaio gustatzen nola kudeatzen duten. Aitzitik, inor bere zaintzapean ez duten gizonek asebetetze handiagoa agertzen dute, erdia pozik dago zaintza-lanak egiten dituzten banaketarekin.

18. GRAFIKOA. LANEN BANAKETEN ASETASUNA
MENPEKO PERTSONA BAT ARDURAPEAN
IZANDA GENEROAREN ARABERA




19. GRAFIKOA. LANEN BANAKETEN ASETASUNA
MENPEKO PERTSONARIK ARDURAPEAN IZAN
GABE GENEROAREN ARABERA




Arrazoiak aztertutik, oso pozik agertzen direnen artean, Laguntza sarea eta bikotearen arteko koordinazio ona azpimarratzen da. Dena den, nahiz eta pozik egon etxean edo zaintzekin daukaten banaketarekin, pozik dauden emakumeen %7a bera bakarrik arduratzen dela adierazten dute.

Erdizka eta asetasun gutxi adierazten dutenek aldiz, oreka faltagatik dela baieztatzen dute, batez ere emakumeen artean.


20. GRAFIKOA. POZIK DAUDENEN ARRAZOIAK GENEROAREN ARABERA



21. GRAFIKOA. ERDIZKA DAUDENEN ARRAZOIAK GENEROAREN ARABERA



22. GRAFIKOA. GUTXI DAUDENEN ARRAZOIAK GENEROAREN ARABERA



Zaintzetan eman diren aldaketetan zentratuz, orokorrean Durangon ez dute uste Covid-ak eragina izan duenik zaintzeko moduetan, %64ak horrela uste du. Genero aldetik, emakumeak dira orokorrean aldaketa gehiago antzematen dituztenak; zehazki, %41ak baieztatu erantzuna eman du. Honek adierazten du gaur egun zaintza gizartean antolatze moduak eragina duela pertzepzio horretan. Nahiz eta orokorrean aldaketarik antzeman ez, zaintzez arduratzen direnak izan dezakete aldaketaren pertzepzio hori gehien azaleratzen dutenak.

Gainera, eman diren aldaketa horien inguruan ere galdetu dugu, biztanleriak honen inguruan daukaten ezagutzak, pertzepzioak eta iritziak aztertze asmoz. Besteak beste, hauek dira adierazitakoak:

11. TAULA. COVID-AREN OSTEAN ANTZEMANDAKO ALDAKETAK GENEROAREN ARABERA

Emakumeen ustetan
Zaugarritasunetik bakarrik ez baina elkarren beharra dugula agerian geratu zen eta bakardadeak edota aislamenduak ia inori on egiten ez dion egoera bat dela.
Nire kasuan ez.
Gaur egun egoera guztiz desberdina izan arren, beldur handia dago oraindik beldur handia dago oraindik
Gehiago areagotu da emakumeok zaintzarekiko daukagun esklabutza
Bai jarri dut aldaketak izango zirela pentsatzen dudalako baina nire zaintza-lanak Covid garaian hasi ziren
Batez ere osasun arloan
Más prevención
Indibidualistagoak
Gehiengoa emakumeen eskuetan
Gizonen ustetan

Kontzientzia garatu da eta zaintzen garrantzia areagotu
Berdin jarraitzen dugu edo okerrago
Más miedos quizá
Reduccion de horarios para comer y salir algo antes
Ez bitarren ustetan
Kontaktu gutxiago

FAMILIA ZAINTZAREN OINARRIAN.

Familiarteko zaintzarekin jarraituz, hainbat elkarrizketetan erruaren kontzeptua atera da. Egoitzetako langileek diotenaren harira, errua asko ikusten da senideen artean, horrela, egoitzara sartu baino aurreneko pausu moduan Egunekeo zentrorra sartzeko erabakia hartzen dute, eta familientzako egunekeo zentroa ondo dator, bertan erru hori kentzeko prozesua hasten baitute. Erruaren sentsazioa kentzeko, denbora asko behar da, eta langileen iritziz, emakumeak dira erru sentsazio hori gehien pairatzen dutenak “*hiru seme eta alaba bat, eta nor dau hemen?, ba askotan alaba*” “*holan da ze azkenien nik uste dot emakumeak garela hori karga gure buruan dekoguna ondiño, ez?*”.


Badaude beste egoitza batzuk zeinetan familiak zentroaren bizitzaren parte bihurtzen diren:

“En el mismo centro de Día, tienen una escuela de familias, que pueden ser familias que pueden ser familiares de las personas en centro de Día o familiares de personas con enfermedad mental que estén asociadas” “una vez al mes se hace aquí una escuela de familias, diríamos de reciclaje porque llevan ya un proceso y al final es una escuela que es mensual y en la que se les sigue dando un poquito estrategias pues para cuidar de la mejor manera a su familiar con enfermedad mental, pero también se les dan estrategias de autocuidado para que ellos como cuidadores pues también se protejan y cuiden de la mejor manera posible”

Familiarizazioa dago, emakumeengan erortzen da. Haurtzaroan gizonek zaintzen dute, heriotzen ez. “*Gainera ikusten duzu, emakumeak daude lan intimoago baten, dutxa, garbiketa... eta gizonak igual bideratuko du bere zaintza lana aisialdira, paseoa etab.*”

Horrela, denbora neurketa unitate bezala hartuta, inkestatuei galdetu izan zaie zenbat denbora erabiltzen duten egunerokotasuneko ekintzak burutzeko, eta hurrengoak izan dira erantzunak:

23. GRAFIKOA. EGUNEROKOTASUNEN EKINTZAK BURUTZEKO ORDU KOPURUA
GENEROAREN ARABERA



Datuei erreparatu, ikus daiteke nola erantzun duten pertsonen artean, ordu kopuru txikiena aisialdian eta norberarentzako denboran ematen dela, eta aldiz, denbora gehiena etxez kanpoko eta zaintza lanetan. Zaintzari erreparatu aurki daitekeen beste datu esanguratsu bat, gizonak ordu gutxiko muturrean agertzen direla.

Bestalde, adieraztekoa da etxetik kanpo lan egiten dutenen artean emakumeak bi muturretan agertzen direla, hau inkestan parte hartu duten etxeko-andre eta jubilatuen kopuruagatik izan daiteke.

ZAINTZA PROFESIONALA

“Las trabajadoras del ámbito están desbordadas y, además, muy mal pagadas”

Bai etxez-etxeko zaintza zerbitzuan, bai zaintzaile pribatuen kasuan, eta baita beste zentro batzuen errealitatean ere, zaintzaile profesional gehienak emakumeak dira, eta hauetan segregazio horizontala eta bertikala ematen da, adibidez, auxiliarrak emakumeak izaten dira, baina fisio eta erizainetan gizonak

agertzen dira, berdina gertatzen da enpresetako goi karguekin, gizonak direla *“ikusten da emakumeen lana dela...”*

Zaintza arloan hartzen diren eszedentziei erreparatuz, datuek diote kasu gehienetan emakumeak hartzen dituztela, Barandiaran egoitzan, hori horrela da ere *“normalena da, batetik gure burua eiten dauelako eta bestetik gitxiau kobretan dozulako, orduen hori da, galdu behar badogu nun galdu behar dogu? ba gitxien kobretan dauen soldatatik”* *“eta zaintza ez dau oso ondo pagauta claro... osea zaintza lanak”*.

Zaintza lanak, beste lan arlo askorekin konparatuz, soldata askoz ere gutxiago jasotzen da, nahiz eta lankideen egoera hobetu, lan gogorrak dira fisiko eta psikologikoki dituzten baldintzetarako, ez dira baloratuta sentitzen, ez ekonomikoki soilik, gizarte mailan ezta ere:

“Uste dot ez dauela parekatuta, eiten dan lana, kobretan danagaz, ez da baloratzen” *“auxiliarren lana ez da baloratzen”* *“zainketak gaur egun ondiño, ez dira baloratzen balorau behar direzen moduen, gara ba hori, emakumeak zaintzen”* *“etorri behar da aldaketa bat, ze azkenean gure gurasoei, guri...guri bebai zaindu behar dozkue, esan gure dot, esque hau da izango dana eta hau montau behar da...ez dakit zelan baina buelta bat”* *“zerbitzuak ez dauz prest ondiño”*.

Era berean, testuinguruan aipatu bezala, zaintza lanak emakumeen lanak dira, eta instituzioetatik kanpo egiten direnak, prekarizatuen daudenak, emakume migratuen lanak dira. Prozesu migratzaile bat pasatu duten emakumeek zaintza lana ahoz-aho bilatzen dute, ezagunen bidez gehien bat, izan ere, lan eskaintza asko erregularizatu gabekoak dira, eta horrek arrisku bat ekar dezake:

“Te metes a mil anuncios a buscar ofertas que a veces pone mira para cuidar a una anciana, a una persona mayor o a niños, pero cuando ya llamas y tal o te piden unos requisitos muy extensos o son falsas, que hombres que no tienen nada que hacer y... entonces también da miedo, por eso mejor de boca a boca porque no sabes que te va a aparecer”

“algunas chicas si han comentado entre ellas que cuando han llamado y tal a veces son mayorcitos están solos y quiere tocarlas o quiere... entonces da miedo porque cuando tu entras a su piso estas expuesta, entonces algunas si tienen miedo, normal”

Bukatzeko “erruaren” ideia zaintzaile profesionaletan ere agertzen da, migrazio prozesu bat burututako zaintzaile batek komentatu bezala, etxean geratutako pertsonak zaindu ezin izan dituen bezala, hemengoak zaintzen ditu haiek izango balira bezala. *“Como no pude cuidar a mi madre en su última etapa, trato de cuidar a los mayores como si fueran mi madre”*.

Lanaren zailtasunari buruz mintzatu dira ere zaintzaile guztiak, adi egon beharreko datu asko, lagundu ahal izateko, lana ondo egin ahal izateko... denboraren beharra azpimarratu dute, batez ere egoitzetako

eta etxez etxeko zaintza zerbitzuetako langileak. Era berean, bakoitzaren zaintzaz ere mintzatu dira, izan ere, ondo zaindu ahal izateko, garrantzitsua da zaintzailea zainduta egotea.

“en el cuidado para ellos, también debemos cuidarnos nosotros parte del interior, los sentimientos y los problemas, tampoco te vas a llevar los problemas que tienes del trabajo a tu día a día, también un cuidarse mentalmente”

Hainbat maila daude zaintza langileen artean, lan baldintzei erreparatuz. Lan publikoa pribatua baino hobeto dago, pribatu instituzionala etxeetako pribatua baino hobeto, kontratuko pribatua kontraturik gabekoa baino hobeto, eta hemen argi geratzen da migrazio prozesuek eta egoera administratiboek dituzten eraginak, izan ere, zaintza lanetan diharduten eta lan baldintza okerrenak dituzten pertsonak migrazio prozesu bat bizi izandako emakumeak dira. Gainera, zaintza zerbitzuen antolaketak berak sistema hau mantentzea ahalbidetzen du: *“Jende askok ez du erabiltzen Etxez etxeko zaintza zerbitzua, ahalmen ekonomikoak edukita, askoz merkeago ateratzen delako kanpotik kontratatzea”*.

Gainera, zaintza-lana beste arazo batzuekin dator, izan ere, lan ez egiteak pertsonekiko berebiziko zaintza beharrak ez asetzea dakar, eta horrek langileengan presio handia sortzen du. Langileekiko sortzen den presioa oporrak, bajak, kontziliazio neurriak ez hartzeko, edo lan baldintzak hobetzeko ekintzak antolatzeak handia da, eurena berebiziko lana den heinean, eta gizarteak sortzen duen iruditegiak lan altruista bat bezala irudikatzen duelako zaintza lana.

PERTSONA ZAINDUAK

Familia zaintza gehienen oinarrian dago, baina zerbitzuetako arduradunek aipatu dute familiaz aparteko espazio bat konpartitzea zainduentzako beharrezkoa dela. Geu Bek, esaterako, kuadrilla bat bezala planteatzen du burutzen duen lana. Aniztasun funtzionalarekin zaila izaten da berdinen arteko espazioetan parte hartzea, eta horregatik espazioak eta dinamikak egituratuta egoteak harremanak errazten ditu. Gainera, komunitatean parte hartzeko aukera zabaltzen du, eta horrek kasu askotan pertsona zainduaren osasunari laguntzen dio, *“antes en casa no hablaba, y ahora habla, y habla porque tiene cosas que contar”*.

Komunitatean parte hartzeak onurak ekartzen ditu beraz, bai pertsona zaindu eta baita pertsona zaintzaileentzako ere. Komunitateak konpartitzeko, elkarzaintzeko eta kolektibizatzeak espazioak irekitzen baititu. Honekin batera, behin baino gehiagotan aipatu den dependentzia egoeran dauden pertsona batzueganako estigma murrizten du, ikusgarri egiten baitu euren errealitatea, eta egunerokotasunaren parte bihurtu.

Oraindik ere, mendekotasun egoera horiek identifikatzea zaila egiten da, eta honek, zerbitzu desberdinetara heltzeko aukerak eta prozesuak luzatzen ditu. Elkarrizketetan maiz agertu den beste ideia bat hau da, zerbitzuetara heltzeko prozesuaren luzera. *“Lehenengo pausua, mankomunitatea, gero gizarte*

langilea, gero dokumentazio guztia eskuratu, gero balorazioa egiteko deia... estamos hablando de un proceso de meses”.

Gainera, menpekotasun balorazioak gero eta menpekotasun ezaugarri gehiago eskatzen ditu eta horrek itxaron zerrendan gora edo behera egitea eragiten du. *“Bigarren graduarekin itxaron zerrendan geratzen zara, eta hortik aurrera gora edo behera joan ahal zara errentaren arabera. Errenta oso altua izanez gero oso zaila da itunpeko plaza bat eskuratzea [eguneko zentro batean]”*. Hala ere, badaude zerbitzu desberdinetan sartzeko aukerak handitzen dituzten ezaugarriak: sarerik ez edukitzea, errenta maila txikia izatea...

Pertsona nagusien kasuan, eta neurodibergentzien kasuan, zaintzaren zailtasuna aipatzen da, gora behera emozionalak eta errealitatearen distortzioak zaintzaileengan sortzen dituzten zailtasuna aipatu izan dira. Honi lotuta, maiz aipatu da mankomunitateak kudeatzen duen Zaindu zerbitzuak zaintzaileei ekartzen dizkien onurak.

Baina, honi heltzeko zailtasunak ere aipatu dira, ezagutza falta batik bat. *“Hay poca información, a la gente mayor y a la familia no le llega la información, haría falta más información”*.

Baliabideak txikiak (plaza gutxietakoak) izateak asko errazten du zaintza. Gero eta jende gutxiago izanda, elkar ezagutza handitzen da, izan ere, zainduekiko harremana oso garrantzitsua da, gero eta gehiago ezagututa askoz errazagoa, politagoa eta aberasgarriagoa da zaintza. Garrantzitsua da baita ere, zaindua – familia – zaintzailea harremana mantentzea eta lantzea. Betiere zerbitzuen helburuak galdu gabe *“nosotros estamos para los usuarios, las familias tienen otros servicios, pocos, pero nosotros tenemos que tener claro el objetivo”*.

Udal baliabideez gain, parte hartze saio, galdetegi eta elkarrizketetan agerian geratu den sententzio bat gizarte zerbitzuek eta zaintza zerbitzuek beharrak asetzeko nahikoa ez direla da, hau da, pertsona asko daudela zaintza zerbitzuen beharretan eta Durangon ez daudela.

Hau batez ere, menpekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzari buruz hitz egin denean agertu da:

“Uste dut gizarte zerbitzuetan gainezka daudela, eta honek gauzak ezin dabie itxaron, ezin dabie itxaron bi hile” “Ez dakizue zenbat jende geratzen den bidean, literal, bidean literal...baibai, egoera holan da, gu beharko gendun beste hiru solairu erantzuna emoteko”.

Diputazioak plaza emateko eskatzen duen dependentzia egoera asko aldatu da. Askok okertu da, altuegia dago baremoa, horregatik hainbeste jende geratzen da laguntza horietatik kanpo, geroz eta altuegoa baitelako gradura heltzeko izan beharreko dependentzia maila *“Hori gradue ez da nahikoa, que ande o no ande no creo que sea lo más importante ontxe bertan baloratzeko pertsona bat residentzia bat behar”*

dauen ala ez, dauz beste pilo bat gauza kontuten hartzeko. Jarri dabe oso altu niretzako geroz eta zailagoa ipintzeko hori sarrera". Horregatik, gaur egun plaza publikoa lortzea oso zaila da.

Eguneko zentro eta egoitza batzuk itunpekoak dira, eta honek esan nahi du, aldundiak plaza batzuk kudeatzen dituela, gehienak, eta plaza hauek eskaintzeko gutxienez Gradu 2ko dependentzia balorazioa izan behar dela plaza bat eskatu ahal izateko, baina gero eta pertsona gehiago daude dependentzia balorazio hori dutenak.

ZERBITZU ETA BALIABIDEEN MAPA BAT

Zaintzaz hitz egitean, zaintzaileez gain baliabide materialak ere beharrezkoak izaten dira zainduak izaten direnen ongizatea eta kalitatezko zaintza bermatzeko. Behar bereziak dituzten pertsonentzako, adineko pertsonentzako eta baita umeentzako ere, herriak espazio atseginak izan behar dira; eta hauek zaintzen dituzten pertsonen lana errazten dutenak.

Hori kontuan izanik, udalak eskaintzen dituen zenbait zerbitzuren balorapena ere egin da. Hurrengo taulan ageri den bezala, udal baliabideak nahiko ondo baloratzen dira. Zehazki, emakumeak umeekin edota pertsona nagusiekin harremandutako baliabideak hobeki baloratzen dituzte, ludoteka kenduta.

Plateruena da parte hartu duten guztiek okerren baloratzen duten zerbitzua, kasu honetan emakumeak kritikoagoak dira.

Desberdintasunak ikusten ditugu baita ere Anbulategi, Kultur gela, euskaltegia eta ludoteka gizonezkoek emakumezkoek baino hobeto baloratzen dituzten baliabideak dira. Beraz, esan genezake, aisialdiarekin edo denbora pertsonalarekin harremandutako baliabideak gizonezkoek hobeto baloratzen dituztela, aldiz emakumeak zaintza edota beharretan oinarritzen diren baliabideen balorapen altuagoa egiten dute.

12. TAULA. UDAL BALIABIDEEN BALORAPENA GENEROAREN ARABERA (1-5)

	Emakumeak	Gizonak	Beste genero bat
Haurreskola	4,3	3,7	4,0
Eskola	4,2	4,0	4,0
Garraio publikoa	3,9	3,4	3,7
Jubilatuen lokala	3,6	2,8	2,0
Parke eta enparantzak	3,6	3,0	3,0
Andragunea	3,5	3,5	4,0
Liburutegia	3,5	3,4	4,0

Farmazia	3,3	3,2	3,3
Frontoia eta gimnasioa	3,3	3,6	0,0
Arte eta historia museoa	3,3	3,7	4,0
Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak	3,3	2,3	3,0
Anbulategia	2,6	2,5	2,7
Kultur gela	2,4	3,3	0,0
Euskaltegia	2,3	3,5	0,0
Ludoteka	2,3	3,5	0,0
Gazte lokala	2,0	2,0	0,0
Etxez-etxeko zaintza zerbitzua	2,0	3,0	0,0
Plateruena kultur aterpea	1,8	2,3	2,0

Gehien erabiltzen diren zerbitzuak eguneroko bizitzarako funtsezkoak direnak (hezkuntza, osasuna eta garraioa) eta aisialdiarekin eta komunitate-interakzioarekin lotutakoak (liburutegia, parkeak eta kiroldegia) dira. Erantzun-aniztasunak inkestatuen lehentasunen arteko desberdintasunak islatzen ditu, testuinguru pertsonalaren eta behar espezifikoaren arabera.

Baliabide hauen bilakaera aztertuz, pandemiaren eragina osasun-zerbitzuetan nabaritzen da bereziki (Osakidetzan eta anbulatorioetan), narriadurari buruzko kritikekin. Beste zerbitzu batzuek ere, hala nola garraioak eta kiroldegiek, murrizketak edo mugak izan dituzte. Hala ere, kasu batzuetan, normaltasunera itzultzea adierazten da zenbait alderditan. Hezkuntza- eta haur-zaintzarako zerbitzuak nabarmentzen dira, ez daudelako edo murriztu egiten direlako, eta horrek zailtasun gehigarriak sortu dizkie familiei.

13. TAULA. UDAL BALIABIDEEN BILAKAERA GENEROAREN ARABERA

Emakumeak	Gizonak	Beste genero bat
Anbulatorioan bai, arreta ereduaren kalitateak behera egin du murrizketa handiak eman direlako herritar eta osasun sistemako langileen kalterako.	Kiroldegi orduetegi aldaketa. Anbulategian zitak hartzeko zailtasunak	Parkeak hobetu dira
Polikiroldegian klase guztiak topera dagoz	Ambulatorio mucho retraso	
Garraioan lehen baino jende gehiagok bidaiatzen du eta zerbitzuak berdinak dira. Ordu	Falta de medicos	

batzuetan ez dago autobusean jesarrita joaterik		
Anbulategiko txandak hartzeko zailtasuna	Eskolako zaintza desagertu da	
Osakidetza está peor (citas...)		
Jende gehiago doa ekintza / leku guztietara		

Jarraian azaltzen den informazioa Durangaldeko Mankomunitateko gizarte zerbitzuen 2023ko memoriatik aterata dago.

Durangon, oinarritzko gizarte zerbitzuetan izapidetutako espediente kopurua 853 izan zen. Horrela daude banatuta:

- Mendekotasun balorazioa: 366
- Desgaitasun balorazioa: 100
- Aparkaleku txartelak: 62
- Telelaguntza: 177
- Laguntza teknikoa Gizatek: 30
- Etxebide: 36
- O.F-EK pentsioak: 14
- Baztertze balorazioa: 2
- Arreta goiztiarra: 8
- APB aldaketa: 23
- Adingabeen bideratzen plana: 13
- Egoitza eguneko zentroan sarrera: 4
- Dirulaguntza G.I.: 4
- G.I. familia integratzeko dirulaguntza: 3
- Familia barneko indarkeria: 5
- Bestelakoak: 6

Nahiz eta ez jakin mendekotasun eta desgaitasun balorazioetatik zenbat kasuetan baloratu den egoitza edo eguneko zentro baterako sarbidea, kontuan izan behar da egoitza eta eguneko zentro guztien artean 264 plaza daudela, eta etxez etxeko zaintza zerbitzuak 88 pertsona artatu zituela, eta beraz, oinarritzko gizarte zerbitzuek Durangon urte baten baloratzen dituen mendekotasun egoera guztiak baino plaza gutxiago dagoela.

Mankomunitateak Exez etxeko zaintza zerbitzuaren datu batzuk azaleratzen ditu 2023ko memorian. URGATZI S.L. enpresak ematen du zerbitzu hori, eta Durangon, 2023an 88 pertsona artatu zituen.

Orokorrean, mankomunitatean, 183 pertsona artatu ziren. Astean hiru ordu edo gutxiago %4, 4-5 ordu astean %62, 6-10 ordu astean %29 eta astean 10 ordu baino gehiago %5. Zerbitzu guztien %97 mistoak dira, hau da, arreta pertsonaleko lanak eta etxeko atentzioko lanak egiten dituzte.

ZAINDU programa ere aztertzeko interesgarria da, “mendekotasun egoeran dauden pertsonen senide zaintzaileei laguntza eta prestakuntza emateko zerbitzua da”. 2024ko abendutik aurrera EDE Fundazioak kudeatzen du zerbitzua.

Hiru ondorio garrantzitsu aipatzen dira memorian:

- Kolektiboaren ahultasuna eta jarraitutasunik eza, hau da, zerbitzuko tailerretan parte hartzea irregularra izaten da, izan ere, mendekotasun egoeran dagoen pertsona bat zaintzeko tailerretan parte hartzea zailtzen duen dedikazio bat eskatzen du.
- Genero ikuspegia: zaintzaileen profila emakumeena izaten jarraitzen du.
- Zerbitzuaren deszentralizazioa garrantzitsua da, udal instalazioetan banakako arretako ordutegi finkoak ezartzen jarraitzearen garrantzia azpimarratzen da.

ZAINDU zerbitzuak lau programa lantzen ditu:

Informazioa eta sentsibilizazioa:

Hainbat zerbitzu desberdinetatik bideratzen dira pertsonak, hala ere, gehienak mendekotasunaren balorazioa izapidetzen ari direnean gerturatzen dira. 2023ko erabiltzaileen artean %78 (402) emakumeak izan ziren.

Eskualdeko boluntariora-elkarte, -talde edo -programekin harreman eta koordinazio lanak egiten dira.

Taldeko eta banakako prestakuntza eta informazioa ematea.

Zaintzaileei edo zaintzarekin lotutako gaiekin interesa duten pertsonen 12 saio indibidual eman zaizkie hurrengo gaiak jorratuz: dementziak, jokabide nahasteak, komunikaziorako baliabideak, burua aktibatzea, kalte zerebrala eta estimulazioa.

Talde-formakuntzei dagokienez 15 saio egin dira 28 pertsonen bideratuak.

10 irratsaio eta 3 hitzaldi ere eman dira.

Laguntza psikologikoko zerbitzua

Banakako laguntza psikologikoko esku hartze saioak 44 izan dira (37 emakume eta 7 gizon) zaintzaileen autozaintza sustatze aldera.

Zaintzaileen profila hurrengoa da: 47 urteko emakumea, Durangon bizi den mendeko pertsonaren alaba, lan-kontratua du eta zaintzaile nagusia da.

Taldeko laguntza zerbitzua ere badago eta Durangon 21 emakumek eta 3 gizonek parte hartzen dute.

Osteran, Durangoko Herrigintza kontseilura aurkeztutako 2024ko memoriatik ateratako datu batzuk aurkezten dira, Durangok eskaintzen dituen zaintzara bideratutako hainbat zerbitzu azaleratzen dira, erabiltzaileak eta beste hainbat datu barne hartuta:


Adinekoak

Durangoko udalak bi teknikari dauzka pertsona nagusiei bideratutako zerbitzuak aurrera eramateko, eta hurrengoak dira udaletik eskaintzen diren zerbitzuak: Zahartze aktibora bideratutako tailerrak, tailer psikosozialak, taxi lagun zerbitzua, jantoki zerbitzua, etxez etxeko menu zerbitzua eta ikastetxeekin batera burututako gabonetako ekintza.

Zahartze aktibora bideratutako tailerren datuak aurkezten dira hemen, eskainitako plazak ikasturtean zehar 506 izan dira, eta orduak kontuan hartuta, 1.125 ordu izan dira, horrela banatuta:

Ikastaroak eta tailerrak	Eskainitako plazak	Ikastaro Kopurua	Talde kopurua	Sesioak	Eskainitako orduak
Guztira	506	17	33	706	1.125


Tailerrak egiteko izen emate datuaren arabera, emakumeek egindako eskaerak gizonenak baino nabarmen handiagoak direla ikus daiteke, honekin batera, agerian geratzen da pertsona batek baino gehiagok kurtso desberdinetara izena eman duela.



Hala, tailerretan hutsik geratu diren plazak oso murrizak izan dira, %5era ere heltzen ez direlarik. Tailerretan parte hartu duten pertsonen adinaren batez-bestekoa adierazgarria da, izan ere, 76 urteko bataz besteko adina izan dute parte hartzaileek, adin nahiko altua 65 urtetik gorako pertsonentzako tailerrak direla kontuan izanda.

Honek, argazkiaren beste ondorio bat berresten du, zahartzaroa aldatzen ari dela alegia, eta pertsona nagusiek gero eta ekintza gehiago eta zabalagoak egiteko beharrak eta nahiak dituztela, alegia. Kontuan hartu behar da, Durangoko 65 urte baino gehiagoko populazioa 6000 pertsona ingurukoa dela, tailerretara %5 izena eman duela.


Hemen aztertu daitekeen beste datu bat, emakumeen gain-presentzia da, izan ere, 65 urte baino gehiagoko populazioaren %56 baino ez dira emakumeak.




Berdina pasatzen da **tailer psikosozialei** erreparatzen badiegu, emakumeen presentzia kasu honetan gizonena baino altuagoa da, eta hauen adinaren bataz bestekoa 85 urtetakoa.

TAILER PSIKOSOZIALAK	Emakumeak	Gizonak	Guztira
-T.P. San Fausto	10	1	11
-T.P. Aramotz	11	7	18
-T.P. Madalena	13	6	19
-T.P. CPM	24	6	30
Guztira	58	20	78

Hurrengo grafikoan ikus dezakegu 2024ko azken lau hilabetetan **podologia zerbitzua** erabilitako bizilagunak, aurreko bi zerbitzuetan gertatzen den berdina ikusten da.



Taxi lagun zerbitzuak, beherakada bat nabaritu du abenduan 2024ko beste hilabeteekin konparatuz. Datu horiek urteko gainerako hilabeteetan saldutako batez bestekoarekin (guztira, 4307 bonu saldu ziren 2024an) Erosleak horrela banatzen dira, emakumeen erabiltzaile presentzia handiagoa erakutsiz beste behin.




Ikastetxeekin batera, bakardadeari aurre egiteko ekintza txiki bat planteatu izan da gabonetan: 682 postal egin dituzte bakarrik bizi diren edo bikotearekin bizi diren 80 urtetik gorako pertsonentzako.


Lehen aipatutako ikastetxeetatik, hurrengoak izan dira parte hartu dutenak:

Nevers ikastetxea, Jesuitak ikastetxea, Zabalarra Eskola, San Antonio ikastetxea, Fray Juan de Zumarraga Ins, Landako Eskola, Kurutziaga ikastola

Jantoki zerbitzua erabilitakoen artean, ikus dezakegu gizonak askoz gehiago erabiltzen dutela zerbitzu hau, rol banaketa tradizionalarekin bat egiten dute datu hauek.



Etkez etxeko menu zerbitzuari erreparatuz, aldiz, oso parekatuta dago erabiltzaileen artean, eta ezin da ikusi desberdintasun handirik emakumeen eta gizonen artean.




Gizarte ekintza, kooperazioa eta enplegua arloa

Arlo honen baitan hainbat programa zabaldu dira 2024an zehar. Larrialdietako etxebizitzak kudeatzen dira arlo honetatik, 7 pisu daude, 2 indarkeria matxistako kasuei bideratutakoa, eta 5 larrialdietara bideratutakoak, honez gain, beste pisu bat Aldundiaren esku dago “Habitat” programarako, eta beste bat Mankomunitatearen esku.

Gainera, arlo honek psikobonoak kudeatzen ditu, gazteentzako diruz lagundutako laguntza psikologia eskaintzen duena.

Migrazio arloa

Migrazioa bideratutako zerbitzu kopuru handia dago Durangon, hurrengo atalean zerbitzu honen inguruko datu batzuk azaleratzen dira (2024ko datuak). 2024an zehar artatutako kasu kopurua 991 izan da, oraingoan ere, emakumeen presentzia gizonena baino nabarmen altuagoa da.



Horrela banatu daitezke atzeritartasun arlotik eskaintzen diren zerbitzuetara hurbildutako pertsona migratuak:

- Denbora bankua: 92 emakumek, 42 gizonek eta 2 elkartek erabili dute denbora bankua.
- Hizkuntza indartzeko programa: 78 ikaslek erabili dute zerbitzua.
- Nazionalitate-azterketak prestatzeko eskolak: 30 ikasle egon dira prestakuntza eskola hauetan.
- Boluntarioen eguna: 300 boluntario inguruk parte hartu zuten.

Berdintasun arloa

Berdintasun arloak ere hainbat programa kudeatzen ditu, alde batetik, **Jabetze eskola**, zeinetan 212 emakumek parte hartu zuten tailer desberdinetan; eta **Topagunea**, zeinetan 98 emakumek parte hartu zuten. Gainera, Wikiemakumeak topaketa bat eman zen Andragunean, 6 parte hartzaileekin.

Honekin batera, **Indarkeria matxista unitatea** martxan dago, teknikari baten esku, eta unitate honek eskaintako datuen arabera, 2024ko maiatzetik 21 pertsonak erabili dute zerbitzua, eta bakoitzaren jarraipena egin da. 21 kasu horietatik 13 zuzenean unitatetik sartu dira, 4 gizarte-zerbitzuetatik eta 4 Osakidetzatik. Kasu guztietan gutxieneko koordinazioa egon da kasu bakoitzean harremana zuen erakundearekin, baina gehienak gizarte-zerbitzuetara bideratu dira. Indarkeria matxista jasaten ari diren biktimei arreta ematen diharduten erakundeez gain, beste koordinazio mota batzuk egon dira: notario-laguntza, ofiziozko abokatuak eta immigrazio-teknikaria, besteak beste.

Gazteria

Gazteria arloak ere, zaintzara bideratutako hainbat programa eskaintzen ditu: alde batetik, **aholkularitza sexualeko** zerbitzu bat jarri da aurten gazteentzako gehien bat, baina baita pertsona helduentzako ere, eta urtero udako **udalekuak** burutzen dira.

Gizarte antolatua

Orain arte aipatutako zerbitzu gehienak erakundeek kudeatutakoak edota zerbitzu pribatuak izan dira, baina agerian geratu den bezala, zaintza komunitarioak ezinbestekoak dira, eta hein handi batean herri mugimenduak eta gizarte antolatuak egiten ditu. Erakundeek heldu ezin dituzten kasuetara gizarte antolatua alde batetik, eta GKEak bestetik heltzen dituzte. Horregatik, Durango dauden zerbitzu eta baliabideen mapan hauek ere barne hartu ditugu, nahiz eta ez ditugun diagnostiko honetan bete betean aztertu.

Izan ere, hainbat eta hainbat eragilek zubi lana egiten dute komunitatetik kanpo dauden pertsonak komunitatera gerturatzeko, eta Durangon adibide asko topa daitezke, geroago aurkezten den mapan agertzen direnak. Pandemia garaian garatu zen zaintza sareak, esaterako, elkarren arteko zaintza

ahalbidetu zuen eragile eta norbanakoen artean, eta horrek, parte hartzea sustatu, eta komunitatetik kanpo zeuden pertsonak bereganatu zituen zaintza kolektibora.

Horregatik, espazio komunitario gehiago eta berriak sortzearen beharra agertzen da, gertukoak, auzokoak, auzo elkarteen bitartez kudeatutakoak... bertan ematen den zaintza naturalagoa eta egonkorragoa baita, eta erakundeen laguntzaz zaintza era berrietara irekitzeko espazioak sortu daitezke.

ZERBITZU ETA BALIABIDEEN GIDA

Bukatzeko, Durangon eskaintzen diren beste zerbitzu espezifiko batzuen argazki bat egin da, lehenengoak udalak kudeatzen dituen zerbitzuak dira; bigarren, mankomunitateak kudeatzen dituenak, eta azkenik, Foru Aldundiak eta Jaurlearitzak kudeatzen dituztenak ageri dira.

Udala. Pertsona nagusientzako zerbitzuak.	Xede- publikoa	Deskribapena	Prezioa
1. Kultur Turismoko Programa	Durangon errolatutako 60 urte edo gehiagoko pertsonak.	Antolatutako bidaia kulturalak: nazioarteko bat udaberrian eta penintsulako beste bat udazkenean. Harreman sozialak sustatzen ditu.	Bidaiaren kostuaren arabera
2. Podologia Zerbitzua	Durangon errolatutako 65 urtetik gorako pertsonak.	Azazkalak moztu eta garbitzea, orpoak fresatzea, hiperkeratosia desijeztea eta beste zainketa prebentibo batzuk.	17 €saio bakoitzeko.
3. Kafetegiko jantokia	Durangon errolatutako 70 urtetik gorakoak (edo zaurgarritasun-egoeran dauden 65 urtetik gorakoak).	Bazkari orekatuen zerbitzua ingurune sozial batean. Jantokiko txartela behar da.	Pentsioaren arabera.
4. Etxez etxeko bazkaria	Durangon errolatutako 80 urtetik gorakoak (edo mendekotasun-egoeran dauden 65 urtetik gorakoak).	Etxean entregatutako otordu orekatuak. Aldez aurretik alta eman eta dokumentazioa aurkeztu behar da.	Pentsioaren arabera.
5. Taxi-Lagun zerbitzua	76 urtetik gorakoak edo desgaitasuna/mendekotasuna duten pertsonak, Durangon errolatuta daudenak.	Udalerri barruko lekualdaketak. Gehienez 22 bidaia 2 hilean behin (28 inguru periferikoetan).	2 € ibilbide bakoitzeko (diruz lagunduta).
6. Suteen prebentzioa	Bakarrik edo bikotean bizi diren 80 urtetik gorakoak.	Ke-detektagailuak, arriskuen analisiak eta ebakuazio-krokisak doan instalatzea.	Doakoa.
7. Etxebizitza hobetzeko laguntzak	Durangon errolatutako 75 urtetik gorakoak.	Etxebizitzaren segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko diru-laguntzak (instalazio elektrikoak, bainuontziaren ordeztutxa jartzea).	Diru sarreraren arabera

Udala. Pertsona nagusientzako zerbitzuak.	Xede- publikoa	Deskribapena	Prezioa
8. Giltzen gordailua Polizian	Durangon erroldatutako adineko pertsonak.	Udaltzaingoan giltzak uzteko zerbitzua, larrialdietara etxebizitzan kalterik egin gabe sartzeko aukera emanez.	Doakoa.
9. Arreta psikosozialeko tailerrak	Hauskortasun-egoeran dauden adinekoak.	Doako tailerrak gaitasun fisiko, kognitibo eta emozionalak mantentzeko. Adinekoen zentroan eta auzoetan egiten dira.	Doakoa.
10. Lagunkide-Akonpainamendua	Bakarrik bizi diren edo unean uneko laguntza behar duten adinekoak.	Boluntarioen laguntza erregularra edo puntuala, bakardadea arintzeko edo gestioetan laguntzeko.	Doakoa.
11. Zahartze aktiboa	Durangon erroldatutako 65 urtetik gorakoak.	Nagusientzako tailer eta formakuntzak, nagusien zentroan eta baita auzoetako zentro desberdinetan ere.	Durangon erroldatuta (14€ / 7€) Ez erroldatuak (21€/10,5€)

Ohar gehigarriak:

- **Kontaktu orokorra:** Durangoko Adinekoen Zentroa (Telefona: 944 657 451, email: adintek@durango.eus).
- **Dokumentazioa:** Zerbitzu gehienek dokumentazio espezifikoa behar dute (NANa, pentsio-ziurtagiriak, etab.).
- **Prezio aldakorrak:** Zerbitzu batzuek prezio mailakatuak dituzte, pentsioaren edo erabiltzailearen egoera ekonomikoaren arabera.

Udala. Atzerriko pertsonentzako zerbitzuak	Xede-publikoa	Deskribapena	Prezioa
1. Atzerriartasunari buruzko informazio-saioak	Atzerritarrak eta atzerritarrekin loturak dituzten nazionalak.	Atzerriartasun legeari eta gizarteratzearekin lotutako gaiei buruzko talde saioak (borondatezko itzulera, tituluen homologazioa, osasun sistemarako sarbidea, etab.).	Doakoa.
2. Atzerriartasunaren arloko orientazioa	Atzerritarrak eta atzerritarrekin loturak dituzten nazionalak.	Bizileku-izapideei, familia berriz elkartzeari, berritzei, nazionalitateari eta abarri buruzko informazio zehatza.	Doakoa.
3. Nazionalitate-azterketak prestatzea	Espainiako nazionalitatea lortu nahi duten atzerritarrak.	DELE (gaztelania) eta CCSE (Espainiako ezagutza konstituzionalak eta soziokulturalak) azterketak prestatzeko eskolak.	Doakoa.
4. Euskarazko hizkuntza indartzeko programa	Durangoko ikastetxeetan matrikulatutako 5-16 urteko ikasleak.	Elkarreragineko testuinguru naturaletan euskara ikastea errazteko jarduera ludikoak.	Doakoa.
5. Hizkuntza boluntariora: Nirekin hitz egin	Alfabetatzean eta hizkuntza-ikaskuntzan laguntza behar duten atzerritarrak.	Hizkuntza testuinguru informaletan praktikatzeko eta gizarteratzea sustatzeko harrera programa.	Doakoa.
6. Esku-hartze psikosozialeko programa	Zailtasun emozionalak edo integrazio-zailtasunak dituzten migratzaileak.	Espazio sozioterapeutikoa eta prestakuntzakoa, migrazioarekin lotutako estresari aurre egiteko tresnak eskuratzeko.	Doakoa.
7. Emakumeari eta kultura-aniztasunari buruzko tailerra	Zaugarritasun-egoeran dauden emakume migratzaileak.	Ahalduntze pertsonal eta kolektiborako tailerra, genero berdintasuna eta rol kulturaleri buruzko hausnarketa kritikoa sustatzeko.	Doakoa.
8. Osasun-agenteak	EMG praktikatzen den herrialdeetako emakume migratzaileak eta gizarte- eta osasun-arloko profesionalak.	Osasun-agenteak prestatzeko eta emakumeen genitalen mutilazioa prebenitzeko prebentzio-programa (EMG). Komunitateko profesionalentzako eta emakumeentzako prestakuntza barne.	Doakoa.

Ohar gehigarriak:

- **Kontaktua orokorra:** Durangoko Udaleko Inmigrazio Saila (Telefonoa: 944 657 091).
- **Ordutegia:** Udaletxean ordua eskatu behar da
- **Dokumentazioa:** zerbitzu batzuek dokumentazio espezifiko eskatu dezakete (adibidez, atzerriartasun- edo nazionalitate-izapideak egiteko).

Udala. Berdintasun Zerbitzuak	Xede publikoa	Deskribapena	Prezioa
1 Ahalduntzerako ikastaroak: Durangon erroldatutako emakumeak (lehentasuna) eta, oro har, emakumeak	Emakumeen ahalduntzerako ikastaroak eta jarduerak	Plaza mugatuak, aurrez izena emandakoen artean zozketatuta Haurtzaindegi zerbitzua barne (baldintzak kontsultatu)	Ikastaroaren arabera (kontsultatu)
2 Topagunea	Adin guztietako emakumeak	Elkartzeko gunea, harremanetarako eta topaketarako gunea, emakumeen artean esperientziak, jakintzak eta kezak partekatzeko	Berdintasun sailak eta elkarteek antolatutako doako jarduerak
3. Indarkeria matxistaren kontrako unitatea	Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeak	Indarkeria matxistaren kontrako unitatea teknikari batek osatzen du. Bere lana indarkeria matxista sufritzen ari diren emakumeen artaketan oinarritzen da. Biktimek igaro behar duten prozesuan erreferente gisa aurkezten da, erakunde ezberdinen jarduera batuz, uztartze puntu moduan, baita ere, herritarrek sentzibilizatzeko eta indarkeria prebenitzeko programak martxan jartzen ditu.	Doakoa
4 II Erakunde arteko protokoloa	Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak	II Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean jarduera espezializatua, koordinatua eta kalitatezkoa bermatzeko protokoloa, bigarren mailako biktimizazioa saihestuz eta biktimen eskubideak lehengoratzuz	Doakoa
5 Indarkeria matxistaren ondorioz eraildako emakumeak oroitzeko gunea	Biztanleria orokorra eta biktimen senideak	Ambrosio Meabe kaleko parkean dagoen espazioa, Durangon indarkeria matxistaren ondorioz eraildako emakumeen ordainari, aitorpenari eta memoriari eskainia	Doakoa

Ohar gehigarriak:

2024-2025 ahalduztzerako ikastaroak:

- **Kontaktua:** Andragunea (Telefonoa: 94 465 70 92, email: andragunea@durango.eus).

Topagunea - Topagunea:

- **Jarduerak:** Doakoak, izena aldezt aurretik ematea baino ez da behar.
- **Kontaktua:** Andragunea (Telefonoa: 94 465 70 92, email: andragunea@duran

Erakunde arteko protokoloa:

- **Helburua:** Genero indarkeriaren aurrean erantzun egokia eta espezializatua bermatzea, birbiktimizazioa saihestuz eta emakumeen eskubideak babestuz.
- **Ikuspegia:** Erakundeen arteko koordinazioa, arreta integrala emateko.

Indarkeria matxistaren ondoriozt eraildako emakumeak oroitzeko gunea:

- **Kokapena:** Durangoko Ambrosio Meabe kaleko parkea.
- **Helburua:** Udalerriko indarkeria matxistaren biktimentzako oroimenerako eta errekonozimendurako leku gisa balio izatea.

Udala. Beste zerbitzu batzuk (Gazteria eta Gizarte ekintza)	Xede publikoa	Deskribapena	Prezioa
1 Durango psikobonoa	Durango erroldatutako 14-35 urteko gazteak	Atxikitako profesionalekin diruz lagundutako 10 saio psikologiko	9 €/ saioa
2 Aholkularitza sexuala	Gazteak eta biztanleria orokorra (lehenesten dira 12-30 urte bitarteko pertsonak)	Sexualitate osasungarriari, identitateari, harremanei eta arriskuen prebentzioari buruzko orientazio-zerbitzua. Eskaintza: - Saio presentzialak (aurretiko hitzordua) - WhatsApp/telefono bidezko kontsultak - Elkarrekiko errespetuaren balioetan hezteak.	Doakoa

Ohar gehigarriak:

Psikobonoa:

Nola eskuratu:

16-35 urteko gazteak:

- **Aurrez aurre:** Kutxazaina SACen (Barrenkale 17).
- **Online:** Denda birtuala.

14-15 urteko gazteak: Gurasoen/tutoreen alde aurreko baimena behar dute (online edo aurrez aurre HAZen).

Kontaktua:

- **Gizarte Ekintza Saila:** Barrenkale 17, 2. solairua.
- **Telefonoa:** 94 465 70 91.
- **Emaila:** gekintza@durango.eus.
- **Ordutegia:** 09:00-14:00

Aholkularitza sexuala:

Ordutegi presentziala: 16:00-17: 00 Gaztegunean (Laubideta, 6).

Kontaktua:

- **Telefonoa/WhatsApp:** 644 89 86 61
- **Emaila:** gazteria@durango.eus
- **Instagram:** @sexorienta

Oinarrizko gizarte zerbitzuak Mankomunitateak kudeatuta	Xede- publikoa	Deskribapena	Prezioa
1. Informazioa, orientazioa, balorazioa eta diagnostikoa	Laguntza soziala edo mendekotasuna behar duten pertsonak.	Pertsonen beharrak orientatzeko eta baloratzeko hasierako arreta zerbitzua.	Doakoa.
2. Desgaitasunaren kalifikazioa*	Desgaitasuna duten pertsonak.	Desgaitasun-mailaren ebaluazioa eta ziurtagiria, onurak eta zerbitzuak eskuratzeko.	Doakoa.
3. Mendekotasunaren balorazioa*	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak.	Zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko mendetasun-maila baloratzea.	Doakoa.
4. Etxez etxeko laguntza	Mendeko pertsonak edo mugikortasun murriztua dutenak.	Etxeko laguntza-zerbitzua eguneroko zereginetarako, zaintza pertsonalerako eta etxeko laguntzarako.	Errentaren arabera.
5. Mendekotasuna duten *pertsonentzako egoitzetako egonaldiak	Etengabeko arreta behar duten mendeko pertsonak.	Aldi baterako egonaldiak edo egonaldi iraunkorrak mendekotasuna duten pertsonentzako egoitza espezializatueta.	Errentaren arabera.
6. Eguneko zentroa*	Eguneko arreta behar duten mendeko pertsonak.	Eguneko arreta-zerbitzua, jarduera terapeutikoak, sozialak eta zaintzakoak eskaintzen dituen.	Errentaren arabera.
7. Telelaguntza*	Bakarrik bizi diren adineko edo mendeko pertsonak.	Istripua edo beharra izanez gero laguntza eskatzeko larrialdi-dispositiboa.	Doakoa edo diruz lagundua.
8. Aparkatzeko txartel berezia mugikortasun urriko pertsonentzat	Mugikortasun urriko pertsonak.	Desgaitasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonentzat gordetako guneetan aparkatzeko aukera ematen duen txartela.	Doakoa.

Oinarrizko gizarte zerbitzuak Mankomunitateak kudeatuta	Xede- publikoa	Deskribapena	Prezioa
9. Prestazio ekonomikoak*	Mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonak.	Mendekotasunarekin edo desgaitasunarekin lotutako gastuak ordaintzeko laguntza ekonomikoak.	Egoeraren arabera.
10. Esku hartze sozioedukatiboa eta psikosoziala	Kalteberatasun-egoeran edo gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonak.	Integrazioa eta ongizatea hobetzeko laguntza psikosozialeko eta hezitzaileko programak.	Doakoa.
11. Zaintzaileentzako eta mendeko pertsonentzako laguntza*	Zaintzaileak eta mendeko pertsonak.	Zaintzaileentzako eta haien mendekoentzako atsedeen, prestakuntza eta laguntza emozionaleko zerbitzuak.	Doakoa.
12. Emakumeentzako aholkularitza psikologikoa eta juridikoa	Zaugarritasun-egoeran edo genero-indarkerian dauden emakumeak.	Aholkularitza psikologikoa eta legala indarkeria- edo diskriminazio-egoerei aurre egiten dieten emakumeentzat.	Doakoa.
13. Adikzioen prebentzioa	Adikzioak izateko arriskuan dauden edo kontsumo-arazoak dituzten pertsonak.	Adikzioak saihesteko edo gainditzeko prebentzio-, sentsibilizazio- eta tratamendu-programak.	Doakoa.

*Mankomunitateko gizarte-zerbitzuetan eskatzen da, kudeaketa FBak egiten du.

Ohar gehigarriak:

- **Harreman orokorra:** Bruno Mauricio Zabala, 9. Durango
- **Aurretiko hitzordua:** 946200492
- **Emaila:** bsocia@dma.eus
- **Ordutegia:** Astelehenetik ostiralera, 9etatik 13:30etara

Zaindu zerbitzua. Mankomunitateak kudeatuta	Xede-publikoa	Deskribapena	Prezioa
Mendekotasuna duten adinekoak zaintzen dituzten familientzako laguntza (Zaindu)	Mendekotasuna duten adinekoak zaintzen dituzten senitartekoak Durangaldean	Laguntza, arreta eta orientaziorako doako programa, mendekotasuna duten adinekoak etxean zaintzen dituzten familientzat. Familia zaintzaileen beharrei modu integralean heltzen die.	Doakoa
1. Informazioa, orientazioa eta laguntza	Mendekotasuna duten adinekoak zaintzen dituzten senitartekoak.	Mendekotasun-baliabideei, -zerbitzuei eta -balorazioari buruzko informazio-, orientazio- eta laguntza-zerbitzua. Geriatrian eta gerontologian espezializatutako psikologo batek koordinatua.	Doakoa.
2. Prestakuntza	Mendeko pertsonak zaintzen dituzten senitartekoak.	Ikastaroak, tailer praktikoak, mintegiak eta hitzaldiak mendekotasunarekin eta zaintzarekin lotutako gaiei buruz.	Doakoa.
3. Taldeko laguntza psikologikoa	Mendekotasuna duten adinekoak zaintzen dituzten senitartekoak.	Laguntza psikologikoko talde saioak, laguntza emozionala emateko eta zaintzara hobeto egokitzeko.	Doakoa.
4. Banakako laguntza psikologikoa	Mendekotasuna duten adinekoak zaintzen dituzten senitartekoak.	Aholkularitza psikologiko pertsonalizatua zaintzarekin lotutako egoera zailei aurre egiteko (osasunak okerrera egitea, egoitzan sartzea, etab.).	Doakoa.
5. Zaintzaileentzako aisialdiko jarduerak	Mendekotasuna duten adinekoak zaintzen dituzten senitartekoak.	Txangoak, bisita kulturalak eta aisialdiko eta erlaxatzeko beste jarduera batzuk zaintzaileentzat.	Doakoa.
6. Autozainketa-tailerrak	Mendekotasuna duten adinekoak zaintzen dituzten senitartekoak.	Tailer praktiko eta egonkorak zaintzaileen osasuna hobetzeko (laguntza psikologikoa, bikoteen zaintza, zirkuitu osasungarriak, etab.).	Doakoa.

Zaindu zerbitzua. Mankomunitateak kudeatuta	Xede-publikoa	Deskribapena	Prezioa
Mendekotasuna duten adinekoak zaintzen dituzten familientzako laguntza (Zaindu)	Mendekotasuna duten adinekoak zaintzen dituzten senitartekoak Durangaldean	Laguntza, arreta eta orientaziorako doako programa, mendekotasuna duten adinekoak etxean zaintzen dituzten familientzat. Familia zaintzaileen beharrei modu integralean heltzen die.	Doakoa
7. Sentsibilizazioa	Biztanleria orokorra eta senitarteko zaintzaileak.	Familia-zaintzari eta zaintzaileen beharrei buruzko proiektzioak, hitzaldiak eta sentsibilizazio-kanpainak.	Doakoa.

Ohar gehigarriak:

- **Koordinazioa:** Laguntza psikologikoko zerbitzuak geriatrian eta gerontologian espezializatutako psikologo batek koordinatzen ditu.
- **Kontaktua:** Zerbitzuetara sartzeko, hitzordua eskatu behar da programaren telefonoaren bidez.
- **Ikuspegi integrala:** Zaindu programaren helburua familia zaintzaileen beharrei modu integralean heltzea da, bai emozionalei bai praktikoei.

Ikastetxeen izena (Hezkuntza)	Titulartasuna
1. Julene Azpeitia haurtzaindegia	Publikoa
3. Landako Eskola	Publikoa
4. Zabalarra Eskola	Publikoa
5. Kurutziaga Ikastola	Itundua
6. Nevers ikastetxea	Itundua
7. San Antonio ikastetxea	Itundua
8. San Jose Jesuitak ikastetxea	Itundua
9. Frai Juan Zumarraga Durango BHI	Publikoa
10. Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutua	Publikoa
11. Ibaizabal Ikastola	Itundua
12. Durangoko Maristak-Ikastetxea	Itundua
13. Hizkuntza Eskola Ofiziala	Publikoa
14. Helduen Hezkuntza Iraunkorra	Publikoa
15. Kirolene - Kirol-irakaskuntzen zentro publikoa	Publikoa

Durangoko Egoitzak	Titulartasuna	Titulartasuna	Helbidea	Plaza kopurua
Tabira	Sozietate Mugatua	Pribatua	Intxaurren kalea	18
Astarloa egoitza	Sozietate Mugatua	Pribatua	Pablo Pedro Astarloa kalea	24
Andra Mari egoitza	Sozietate Mugatua	Pribatua	Pablo Pedro Astarloa kalea	32
Joxe Miel Barandiaran	Foru Aldundia	Publikoa	Jose Miel Barandiaran kalea	113

Durangon Egunekeko zentroak	Titulartasuna	Titulartasuna	Helbidea	Plaza kopurua
Eguzkilore	Sozietate mugatua.	Pribatua	Intxaurren kalea	24
Joxe miel barandiaran	Foru Aldundia	Publikoa	Jose miel barandiaran kalea	40
Tabira	Sozietate mugatua	Pribatua	Intxaurren Kalea	14

HERRI MAILAKO BESTE BALIABIDE BATZUK

Lan arloa	Elkartea	Kontaktua
Nagusien elkarteak	Bizidun	Pablo Pedro Astarloa, 1-2.a asteazkenetan, 18:00etatik 19:00etara.
	Izar Gaztea Elkartea	Pablo Pedro Astarloa Kalea, 1. Telefonoa: 664 62 45 80
Gizarte bazterketa	Caritas (Etxepel)	Helbidea: Kanpatorrosteta Kalea 9, Telefonoa: 665 70 31 33
	El Árbol (Auzo Alai)	Helbidea: Oiz kalea, 9.Madalena
	Cruz Roja	Helbidea: Olleria Kalea, 7, Telefonoa: 946 81 09 49
	Jaed	Helbidea: Laubideta Kalea, 6 A - 1º esk. Telefonoa: 688 68 98 22
	Arrupe Etxea	Helbidea: Kurutziaga Kalea, 1
	Sartu	Helbidea: Murueta Torre Auzunea Etxetaldea, 8 Telefonoa: 946 20 04 49
Gaixotasunak	AECC Espainiako Minbiziaren Kontrako Elkartea	Telefonoa: 944241300
Aisialdi talde kristauak	Arrupe Etxea	Helbidea: Kurutziaga Kalea, 1
	Iñurri eskaut taldea	Helbidea: Kurutziaga 13, Bajo (Palacio Garai) Emaila: inurriskaut.org

Nazioarteko laguntza	La otra mirada	Emaila: correoatotramirada.inttfo Telefonoa: 615 78 13 12
Migrazioa	Rio de Oro	Helbidea: Montevideo 11 Emaila: riodeorodurango@hotmail.com
Aniztasun funtzionala	Geu Be	Helbidea: Laubideta kalea, 6-A Ordutegia: A-O: 9:30-13:30 / 16:30-20:00 Telefonoak: 946 21 72 68 / 688 77 27 70 Emaila: geubecordi@yahoo.es
Desgaitasuna edo mendekotasuna duten senideak	Bizitzen	Helbidea: Murueta Torre 8, bajo E Telefonoa: 94 623 27 44 Emaila: bizitzen@bizitzen.org
Guraso Elkarateak		Gehiago jakiteko: Durango udala
Auzo Elkarateak		Helbidea: Barrenkalea, 17
Kirol Taldeak		Telefonoak: 946 03 00 00 / 620 86 83 50

Lan arloa	Herr Mugimendua	
Pertsona nagusiak	Pentsionistak	Gehiago jakiteko: Andragunea Helbidea: Lariz dorrea, 2 Telefonoa: 944 65 70 92 Emaila: andragunea@durango-udala.net
Langileria	Sindikatuak	
Feminismoak	Batukandra	
Feminismoak	Andereak	

Feminismoak	DAFA Durangoko Autodefentsa Feminista Asanblada	Ordutegia: 09:30-13:00 / 17:00-21:00
Feminismoak	Bilgune feminista	
Migrazioa	Ongi etorri errefuxiatuak	
LGTBIQ+ mugimendua	Kuir eztanda	
Zaintzak	Zaintza komitea	

ONDORIOAK

Zaintza lanak **ikusgarri egin eta aitortu** beharra dago.

Hein handi batean **emakumeen lana** da, zaintza profesionala, ez-profesionala, eta komunitatearen zaintzarena.

Emakumeen **zaintza lana naturalizatuta** dago, genero roletan errotuta, eta beraz, ez da ikusi ez aitortzen. Hala, **gizonek burutzen dutena ikusgarri** geratzen da eta aitortza handia ematen zaio. Hala eta guztiz ere, zaintza motak **generoz banatuta** egoten jarraitzen dute, nagusien zaintzaz emakumeak arduratzen dira, orokorrean; eta umeen zaintzan berriz, gizonak gutxinaka sartzten ari direla agerian geratu da (hala ere, emakumeen gain geratzen den buru-zama konpondu gabe dagoen kontu bat da oraindik).

Zaintza profesionala ez dago gizarte mailan baloratuta, ez ekonomikoki, ez baldintza orokorrei dagokienean, ez eta estatusari dagokionean ere.

Zaintza profesionalean ere **mailak** agertzen dira, unibertsitate ikasketak eskatzen dituzten lanak (gizarte langileak eta hezitzaileak, psikologoak, terapeutak, podologia zerbitzuak, erizaintza, haurtzaindegietako langileak...) alde batetik eta arlo publikorako lan egiten duten zaintzaileak (etxez-etxeko langile publikoak, erresidentzia edo eguneko zentro publikoetako langileak, garbitzaile publikoak...)bestetik, baldintza hobeak dituzte.

Berriz, azpikontrataturako zerbitzuak (etxez etxeko zaintza, itunpeko erresidentziak, zainduz programa...) edota guztiz pribatuak diren beste zerbitzu batzuk (zaintzaile pribatuak, erresidentzia eta eguneko zentro pribatuak, barne-erregimenean lan egiten duten emakumeak...) lan-baldintza okerragoak dituzte.

Orokorrean, **informazio falta nabarmena** aurkitu da zaintza zerbitzuei dagokienean, bai langileen eta baita herritarren eta erabiltzaileen artean ere. Asko kostatzen da identifikatzea dependentzia prozesuekin nondik hasi, ze zerbitzu publikora jo behar den, edo ze instituziori eskatu behar zaion laguntza.

Era berean, administrazioen arteko **koordinazio falta bat (atomizazioa)** somatu da, eta honekin lotuta baliabide falta handia ere, bai ekonomikoak eta baita giza-baliabideak ere. Honekin batera, zerbitzuen eskaeren kopurua hazi egin dela adierazi da, berriz, zerbitzuen publikoen eskaintza ez. Horregatik, lehen egin ahal zen zaintza integrala eta jarraipenezkoa orain zailtasun handiekin egiten da, zaintza fisikoa lehenetsiz. Gainera, zerbitzu asko pribatuak izatea irabazi asmoetara bideratzen ditu zerbitzuak, zaintza eta zerbitzua bera bigarren maila batean jarritz.

Durangoko udalak pertsona nagusien **zaintzara bideratutako zerbitzu kopuru handia eta kalitatezkoa dauka**. Dependentzia gradu alturik ez daukatenentzat, orokorrean, oso balorazio ona

daukatenak. Hala ere, dependentzia egoeran dauden pertsonentzako baliabide falta bat agerian geratu da Durangon, nahiz eta Geu Be bezalako elkarteak oso ondo baloratuak egon diren. Honekin lotuta, agerian geratu da, oraindik ere, asko direla zaintzaren euritakoaren barruan sartzen ez diren errealitateak: indarkeria sufritzen duten emakumeak eta seme-alabak, heldu berriak, espazio naturalak, etxebizitza izateko aukerarik ez dutenak, egoera administrazio irregularrean dauden pertsonak...

Administrazio maila desberdinen arteko konpetentziei ere erreparatu behar zaie aurrekoarekin lotuz, izan ere, Durangon, oinarrizko gizarte zerbitzuak mankomunatuta daude, eta beraz, mankomunitatea da zaintzara bideratutako zerbitzu gehienak kudeatzen dituen. Honekin batera, Foru Aldundiaren konpetentzia zuzena dira nagusientzako egoitzak eta eguneko zentroak, eta Eusko Jaurlaritzak eta baita Foru Aldundiak ere, pertsona nagusientzako eta behar bereziak dituzten pertsonentzako laguntzen (diru-laguntzak, egoitza-baliabideak, teleasistentzia zerbitzuak...) konpetentzia gehienak dauzkate.

Zaintza komunitariora bideratutako espazioen falta dago. Erabilera anitzeko espazioak, auzo mailan, adibidez, kudeatu ahalko zirenak. Honetarako flexibilitatea beharrezkoa da.

Pertsona jubilatuen errealitatea asko aldatu da, eta **zahartzaroa gero eta aktiboagoa** bihurtzen ari da. Hala ere, badago zahartzaro ez aktibo bat, eta honen zaintza kolektiboagoa egingo duten espazioen beharra dago, zaintzaileak eta zainduak eroso eta elkarrekin egon ahalko diren espazioak.

Umeentzako ere **espazio itxien** beharra ikusten da. Umeekin hainbat gauza lantzeko aukera ematen duten espazio ez arautuak, zeinetan zaintza kolektiboago bat ahalbidetuko duten.

Erronka demografikoaren aurrean zaintza **kolektibizatu** behar da, zaintza herriko bizitzaren parte ikusgarri bihurtu behar da, eta gizartearen erantzukizun bilakatu. Parte hartzea sustatu behar da, eta horretarako instituzioetatik baliabideak, espazioak eta erraztasunak jarri behar dira.

ETORKIZUNERA BEGIRAKO ERRONKAK

1. Demografiaren aldaketa – behar berriak
2. Familiarizazioa– familia mota berriak, txikiagoak
3. Auzo sareen txikitzea – gizartearen atomizazioa
4. Bitartekaritza eta pribatizazioa – langileen baldintza txarrak, zerbitzuen kalitatearen beherakada, ordainketa ahalmenaren araberako zaintza, lan eskubideen kontrako zaintza harremanak
5. Koordinazio falta – zerbitzuen duplikazioa, informazio falta, lan-karga handia
6. Inbertsio falta – behar gero eta handiagoak, baliabide gero eta txikiagoak

BERAZ

1. Zaintzarako espazio berriak ireki – elkarzaintzarako eta behar berezi batzuen zaintzarako aukera berriak zabaldu
2. Kolektibizaziora bideak eta aukerak ireki – eragileei aukerak zabaldu, espazio publikoak erabiltzeko forma berriak
3. Parte hartzea sustatu - komunitatean parte hartzeko espazio berriak sortu eta desarautu
4. Zaintza zerbitzuak publikatu
5. Erakundeen arteko zaintza espazio bat sortu, eragileekin batera lanean jarraitzeko
6. Zaintzara bideratutako inbertsioa handitu

Zaintza ez profesionala

- Gizonak erantzunkide bihurtu → Gizonezkoen erantzukidetasuna landu eta maskulinitate eredu hegemonikoa eraisteko lan egitea: gaia lantzeko kultur-eskaintza, berariazko tailer edota ikastaroak adin-tarte ezberdinetako gizon eta mutilekin, gizonen zaintza-lanetan duten erantzukidetasunaren inguruan hausnartzeko tailerrak/gogoeta espazioak...
- Gizonak erantzunkide bihurtu → Zaintzaren azterketan oinarrituta, gizonen erantzukidetasuna sustatzeko esku-hartze ildoak diseinatu eta garatu.
- Emakume zaintzaileen zaintza lanak ikusgarri egin → Gizarte Ekintza arloarekin batera ekintza bat egin
- Emakume zaintzaileen zaintza lanak ikusgarri egin → Genero aginduen ondorioz, emakumeei historikoki egotzi zaizkien lanen balorazioa eta ikusgarritasuna sustatzeko eta zaintza-lanak balioan jartzeko zein memoria historikoa lantzeko beka deialdia sortu.
- Zaintzaileentzako zaintzara bideratutako zaintza baliabideak handitu eta gehiago publizitatu → Gizarte ekintza arloak eskaintzen dituen zerbitzuei publizitate gehiago eman
- Zaintzaileek herriko bizitzan parte hartzeko dauzkaten aukerak bermatu → Udalaren esku dauden ekimenetan zaintza-ardurak dituzten pertsonen (batez ere emakumeak izan ohi direnak) parte-hartzea ahalbidetzeko berariazko neurriak hartu.

Zaintza profesionala

- Zaintzaile profesionalen lan baldintzak hobetu → Instituzioetatik kanpo dauden zaintzaile profesionalen lan baldintzak eta egoerak aztertu.

Pertsona zainduak

- Informazioa handitu → Zaintzaren inguruko programa eta zerbitzuen inguruko publizitatea egin, publiko objektibo desberdinetara zuzendu.

Baliabideak eta zerbitzuak

- Herriko espazio fisikoak eraldatu zaintza ahalbidetzeko → Zaintza erdigunean jarriko duen hirigintza eredua sustatu, espazio publiko inklusiboak sortuz egiten diren obra edota hobekuntza guztietan.
- Zaintzarako espazio itxiak ahalbidetu → Udaltegietan zaintza espazio eta ordutegiak zehaztu auzo elkarteekin koordinatuz
- Zaintza espazio komunitarioak handitu → Komertzioekin, farmaziekin, osakidetzarekin... lana handitu
- Zerbitzu, baliabide eta eragileen artean koordinazioa bermatu → Lanean jarraitzeko koordinazio eta lan-espazio bat sortu

- Zaintzarako baliabide publikoak handitu → Udalaren konpetentzia zuzena diren baliabideak handitu (diru-laguntzak, espazio fisikoak, kontratazio zuzenak...)
- Zaintza eredu berrietara egokitu → Zuzenean edo zeharka zaintza lanetan eragina duten zerbitzuen eta laguntzen gaineko moldaketak egin, herriko zaintza beharretara egokitu daitezen.
- Zaintza eredu berrietara egokitu → Azterketen emaitzak kontuan hartuta, ekimen berritzaileak pentsatu eta garatu, zaintza beharrei eremu publiko eta komunitariorik erantzuteko, generorolak irauliz.